

AIARALDEA *hemen*



Nekazaritzak ez du bizitzeko adina ematen, pobreziaren mugan bizi gara.

Baserriko egunerokoa geroz eta zailagoa da bete behar ditugun paper guztien ondorioz.

Ezinbestekoa da herritarren kontzientziak, merkatuetara bertaratu behar dira.

Salmenta-zuzena da bizirauteko dugun modu bakarra.

Bide honetatik jarraitzen badugu baserri txikiak desagertu eta eredu industrialak gailenduko da.

Lehen sektorea: biziraupena aldarri

Gastuak ez dira asumigarriak, ezin dugu kostu finkoen igoera guzti hori saltzen dugun produktuan kargatu.



erreportajea

Baserriak hil ala biziko atakan

Traktore karabanak, barrikadak, protestak... ohikoak izan dira lehen sektoreko langileen mobilizazioak azken asteetan. Aiaraldean ere izan du oihartzuna protesta olatuak. Protestek agerian utzi dute sektorearen egoera ahula eta bizi duen kinkalarrria. Baina eredu kontrajarrien arteko talka ere utzi dute agerian: industria eta baserria. Aiaraldea Komunikabideko kideak azokara atera gara, eskualdeko baserriarren iritziak bertatik bertara ezagutzeko.

Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte eta Txabi Alvarado Bañares**



Azken asteetan Frantziako eta Espainiako estatuak astindu dituzte lehen sektorearen protestek. Europar Batasunak ezarritako neurrien aurka eta sektorearen etorkizunaren alde, traktore karabanak eta errepide mozketak izan dira tokian toki.

Euskal Herrian ere izan dute oihartzuna protestek, Nafarroan gehien bat. Araban ere elkarretaratzeak egin dituzte traktoreekin, Eusko Jaurlaritzaren edota Foru Aldundiaren aurrean esaterako.

Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak zein Foru Aldundiek lehen sektoreko ordezkari sindikalekin batzartzeko presutasuna azaldu dute, protesta olatuen ostean. Euren aldarrikapenei kasu egingo dietenaren esperoan, lehen sektoreko ordezkariak historikotzat jo dituzte mobilizazioak.

Protesta olatuak Aiaraldea ere jo du, zeharka bada ere. Eskualdeko herri mugakideetatik etorriak dozenaka traktorek zeharkatu zituzten Artziniega, Aiarra eta Amurrioko errepideak. Quincoces de Yuso eta Merindadeetako ekimena izan zen hura, eta Espainiako banderak eta kartel xebreak soinean, irudi atipikoa utzi zuten gurean.


Izan ziren Burgoseko auzoki-

deen karabanara batu zen eskualdeko baserriarrik. Baina, oro har, tokiko ekoizleek urrutitik jarraitu dituzte azken asteetan albistegietako lerroburuak okupatu dituzten protesta hauek. Izan ere, lehen sektorearen eredu industrializatu bat defendatzen duten lur-jabe handiek bultzatu dute azken asteetako nekazal-oldarraldia. Aiaraldeko baserriarren antipodetan dagoen eredu hain zuzen ere; tokikoa eta ekologikoa.

Biziraupena aldarri

Baliteke pestiziden erabilerekin ados ez egotea, edota merkatalgune handietan baino azoka txikietan produktuak saltzea hobestea, baina izan Aiaraldeko baserriar edota Gaztelako lur-jabe handi, denak datoz bat lehen sektorea egoera ahulean aurkitzen dela ondorioztatzean: zaharkituta dagoen sektorean gehiegizko burokrasia eta honi lotutako teknologia berrien erabilerak jasangaitza bilakatu du baserriar askoren egunerokoa; lehengaien eta produkzio gastuen gorakadak ere asko murriztu du sektoreak bezekoa zuen errentagarritasun eskasa; eta, azkenik, belaunaldi aldaketa ezak baserri askoren desagerpena suposatuko du.

Aiaraldea Komunikabideko kideak Audio eta Amurrioko azoketara bertaratu gara, baserriarrek hitz egin eta sektoreak bizi duen unearen inguruan hausnartzeko asmoz.





LEIRE IBARROLA GOBANTES

Zer iritzi duzu azken asteetako lehen sektoreko mobilizazioen inguruan? Bat egiten duzu?

Asuntoa ez da babestu edo ez babestu, asuntoa da lehen sektoreak bizi duen egoera jasangaitza dela. Izugarritzko exijentzia zorrotzak ari gara jasotzen, baserritarrentzat jasangaitzak direnak. Bien bitartean hala moduzko produktu tonak eta tonak datoz atzerititik, kamioi erraldoietan.

Nora goaz horrela? Baserritarrak neurri zorrotzen artean itzotzen gaitzuten bitartean; bal al dakigu zein lan-baldintzekin ekoiztu diren kanpotik datozen produktu horiek guztiak?

Zein izan da azken urteetako lehen sektorearen bilakaera Aiaraldean?

Azken urte hauetan kostu finakoek izugarri egin dute gora, baserrien errendimenduak, ordea, ez du inolako bilakaerarik izan. Hau da; baserriko artaldeak edo aziendak eman dezakeena bakarrik ematen du, animaliak dira, ez makinak. Bien bitartean zerealen, erregaien edota ibilgailuen prezioek eskandaluz egin dute gora.

Gastuak ez dira asumigarriak, ezin dugu kostu finkoen igoera hori guztia saltzen dugun produktuan kargatu. Bezeroek pentsa dezakete produktua garestia dela, baina ez da guztiz egia, gure marjinak asko murriztu dira; pro-

duktuaren prezioa ez da gure bizi-tza garestitu den bezainbeste igo. Gure soldatetik ari gara murrizten orain.

Urteak daramatza sektoreak egoera larrian, ez da azken asteetako kontua, honek laster egin beharko du eztanda. Traktoreen mobilizazioak ikusi ditugu berriki; norbaitek galdetu dio bere buruari zenbat balio duen traktore batek? Zenbat denbora behar dugun traktore bat ordaintzeko?

Ez badugu sektorea bultzatzen, aurki 3D makinekin inprimatutako janaria jan beharko dugu, etorkizunean inork ez duelako baserrian lan egin nahi izango. Oso lan gogorra da hau.

“Gastuak ez dira asumigarriak, ezin dugu kostu finkoen igoera ghorri guztia saltzen dugun produktuan kargatu”



IÑAKI URKIXO
NEKAZARIA

Ez gara gu izan



Baliteke egun hauetan Gasteiztik, Iruñetik edo agian Bilbotik gertu gidatzea tokatu izana. Eta litekeena da traktore-karabanaren bat aurkitu izana, auto-ilararen bat jan izana, eta, oraingoan bakarrik izan bada ere, lasaitasunez hartu izana, motorra amaturu zain egon zaren bitartean, eta baita lehen sektoreko langileei laguntzeko bozinkadaren bat ere jo izana.

Ba horietakoa izan bazara, mila esker intentzinoagatik, bihotzez, baina jakin ezazu ez garela gu izan traktoreenak. Eta guk diodanean, agroekologiatik hurbil dagoen eredu produktibo bat praktikatzen dugun baserritarrei buruz hitz egin nahi dut.

Izan ere, lehen sektorearen barruan, gizartean bezala, bi eredu daude aurrez aurre. Kapitalaren eredu dago, traktore handiak, ekoizpen handiak eta monolaborantzak, merkatu globalera bideratuak. Eta baserritarren eredu dago, ekoizpen txikiak eta dibertsifikatuak, hurbileneko biztanleentzat.

Guk ere, baserritar ereduak, mila aldarrikapen izan ditzakegu errepidera botatzeko; baina, jakina, ez da horietako bat animalien ongizateari buruzko legea indargabetzea; ez da horietako bat izango herbiziden erabilera %50 murrizteko betebeharra ezabatzea; ez da horietako bat izango Ebroko ura zekale lurretara eramatea; eta, ez diegu gure bozeramaileei baimenik emango, esateko Eusko Jaurlaritzak eta aldundiek, gajoek, ahal duten guztia egiten dutela lehen sektorearen alde, baina konponbidea beraien eskumenetik kanpo dagoela (reptilianoak errudun ziur asko, dena kontrolpean dute eta).

Gure arazoa eredu agroekologiko bat lantzen duten hamar baserrititik zortzi ez iristea gutxieneko soldatara da, astean 52 orduko lanaldiekin, ekoizpenerako gehiegizko eskakizunek gero eta merkaturatze-bide gehiago zarratzen dizkigutela; edota elikagaiak eraldatzeko zentruen sarea desagerrarazi izana.

Gure arazoa, dirulaguntzen tranpan sartu diren ekoizleak produktua ekoizpen-kostuaren azpitik merkaturatzea da, edo elikagai-produkzioan eskatzen diren gutxienekoak betetzen ez dituzten herrialdeekin merkataritza libreko itunak sinatzea. Baina baita ere produktu horiek erosi eta kontsumitzen dituztenak.

Agian laster gu ere errepidera irtengo gara, ikusten duzue arrazoiak ez zaizkigula falta, baina ez da izango, ez Dani Desokuparekin, ezta Voxeko neska kaiku horrekin ere.

Eta orduan bai, aukera izango duzue, bidean txalotzeko, funtsezkoak izan ginen hiru hilabete haietan bezala, akordatzen? Baina kontuan izan, baserritarrak txalotu ostean osterara be supermerkatuak bidea hartzen badugu ez dugula aurrera egingo.

erreportajea



ENEKO SERRANO MOSCOSO

Zer iritzi duzu azken asteetako lehen sektoreko mobilizazioen inguruan?

Alde batetik, bat egiten dugu aldarrikapenekin, baina bestetik "sentimendu kontrajarriak" ditugu. Askok ekoizle txikiak kontratatu egiten duten neurriak aldarrikatu dituzte, 20/30 Agendaren kontrakoak adibidez, eta hori ez da inondik inora nire pentsatzeko modua. Lehen sektorearen alde lan egin behar dugu, baina baita gure planetaren alde ere.

Egia da sektorearen inguruan lan asko egin behar dela, hala nola inportazioak murrizteko eta gure produktuak indartzeko.

Zure ustez zeintzuk dira lehen sektorearen alde egin beharrekoak?

Alde batetik lehen aipatutako inportatutako produktuak gehiago kontrolatzea, bertoko produktuek dituzten betebeharrak berdinak izan ditzaten. Ez nabil

esaten inportazioak egon behar ez denik, baina guk produkzioan ditugun mugak edota planeta zaintzeko hartu beharreko neurri berdinak haiei ere exijitza; liga berdinena lehiatu gaitez denok. Ekoizle handiei ere mugak jarri beharko liekete, super-

“Salmenta zuzena da bizirauteko dugun modu bakarra”

merkatu handiek ez dezaten prezio baxuetan erosi.

Ekoizle gaztea zara zu. Nola ikusuten duzu egoera Aiaraldean? Belaunaldi aldaketarik egon da?

Nik ez dut jende gazterik ikusten, bokazioa badago baina inork ez du hori aurrera eramaten. Burukrazia eta traba asko daude usiategi bat aurrera eramateko, eta produktua baloratu behar da. Ni, nire lehenengo urteetan, gaztandegi bati esnea saltzen hasi nintzen. Produkzio kosteak asko igo ziren, ordea, eta nire gaztandegi propioari ekin nion. Esnearen parte bat saldu eta bestea transformatu egiten nuen, baina ohar-tu nintzen bizirauteko modu bakarra salmenta-zuzena egitea zela.

Orduan erabaki nuen produkzioa murriztea eta guztia salmenta-zuzenera bideratzea, komertzio-txiki eta azoketan saltzen dut.



IRATXE LARRAZABAL AZPURU

Zer iritzi duzu azken asteetako lehen sektoreko mobilizazioen inguruan?

Nik ondo ikusten dut mobilizatzea. Badira nik ontzat jotzen ez ditudan moduak; kamioiak deskargatu eta karga bide bazterrean botatzea, adibidez. Baina orokorrean bat nator protestekin.

Zein da lehen sektoreak Aiaraldean gaur egun duen egoera?

Gehiegizko burkorazia da daukagun arazo nagusietako bat. Paper artean itotzen gaituzte. Ni neu azokan egon ahal izateko makina hau erosi behar zian dut, 2.000 euroren truke. Nire ahizpa nirekin azokan egon dadin altan eman beharra dut, baina hori ezinezkoa da bi ordu egiten baitu lan; ordaintzen dudana jasotzen dudana baino gehiago da. Ezinezkoa da horrela aurrera egitea.

Saltoki handiekin lehiatzea ere oso zaila da guretzat. Azokan soberan geratutako generoa bota egin behar dugu, saltoki batek, ordea, hurrengo egunean saldu dezake.

Nolakoa izan da azken hamarkadetako eboluzioa?

Txarrera egin duela esango nuke. Laguntza gutxiago daukagu urtez urte. Lehen aipatu bezala, baserriko egunerokoa gero eta zailagoa da bete behar ditugun paper guztien ondorioz. Ardi ziztrin bat mugitze-ko berrogei dokumentu entregatu behar dituzu. Lehen abereentzako medikamentuak lortzea errazagoa zen ere, orain hori ere zaildu dute. Astean denbora asko galtzen dugu paper artean, ezinezkoa da. Askotan pentsatzen dut ez duela merezi horrela bizitzeak.

“Baserriko egunerokoa geroz eta zailagoa da bete behar ditugun paper guztien ondorioz”

erreportajea

Zer iritzi duzu azken asteetako lehen sektoreko mobilizazioen inguruan? Bat egiten duzu?

Sektorea oso txarto dago, prekaritatea izugarria da. Ez da inor gutaz oroitzen. Nik uste dut ondo dagoela mobilizatzea, asuntua da zertarako mobilizatu. Azken astean mobilizatu direnak sektoreko indartsuenak dira, patronalak hain zuzen ere: Espainiako estatuko *terratenienteak*, nekazaritza kontrolpean mantendu nahi dutenak eta diru-laguntza guztietako dirua biltzen dutenak.

Gu ustiategi txikiak gara, ez dugu bizirauteko adina, oso prekarizatuta gaude. Ez dugu antzekotasunik mobilizatu diren azken horiekin.

Nik ekologikoan egiten dut lan. Mobilizazio hauetatik asko harritu naute hainbat aldarrikapen. Frantzian, estaerako, asko

protestatu zuten herbiziden alorrean Europak ezartzen dituen neurrien aurka. Baina produktu hauen erabilera masifikatuak lurrak pbretu eta kaltetu egiten ditu, eta bide hori jarraituz gero, egunez egun txarrago jango dugu.

“Ezinbestekoa da herritarren kontzientziak, merkatuetara bertaratu behar dira”**Zeintzuk dira baserriar txikien aldarrikapenak?**

Nik uste administrazioa malguagoa izan behar dela. Kontrolak egon behar dira noski, beharrezkoak dira. Baina laguntzak

eskatzean malgutasuna behar dugu baserriarrok, zoratu egiten gaituzte hainbeste paper artean.

Ezinbestekoa den beste zerbait herritarren kontzientziakoa da. Herritarrek merkatuetara eta baserriarrengana hurbildu behar dira. Mundu guztiak dio zero kilometroaren aldekoa dela.

Nola ikusten duzu lehen sektorearen egoera zure inguruan?

Duela hamar urte batu nintzen sektorera, berria naiz zentzu horretan. Baina ikusten dudana da nekazaritzan ez dagoela erreleborik, eta ezintasuna daukagu eskariari erantzuteko.

Gaur gaurkoz Laudioko merkatuan produktu asko falta dira: porruak, letxugak... zergatik? Ez garelako iristen ditugun baliabideekin.

JOSE MIGUEL ATXA ‘TXEMI’**MARIA BEGOÑA ESCUZA ARBAIZA****“Bide honetatik jarraitzen badugu, baserri txikiak desagertu eta eredu industrialak gailenduko da”****Zer iritzi duzu azken asteetako lehen sektoreko mobilizazioen inguruan? Bat egiten duzu?**

Bai, noski egiten dugula bat mobilizazioekin. Gu baserriarrok gara, baserri bizi gara eta justuki biziraun dezakegu. Guk behiak ditugu eta ezin dugu ia hauen pentsua ordaindu ditugun lursailekin. Laguntzarik ez badago, laster desagertuko da lehen sektorea. Nire alabak, esaterako, ez du familia negozioarekin jarraitu nahi, ez duela etorkizunik ikusten bertan.

Zeintzuk dira tokiko nekazarien aldarrikapen nagusiak?

Alde batetik, erretiroa hartuko dugunoi merkatura etortzen uzten jarraitzea. Izan ere geroz eta zailtasun gehiago ari dira jartzen. Guk etxerako ekoizten dugu eta soberakinak jaisten ditugu azokara, hori egiten jarraitu nahi dugu, autokontsumoa sustatuz.

Ekologikoan egiten dugu lan, sasoiari sasoikoa ekoiztuz. Ogia ere egiten dugu baserrian.

Zer zailtasun dituzue zuen egunerokoan?

Denetarik, egunez egun traba gehiago ditugu. Duela urtebete Ticket BAI sistema jarri zuten merkatuetan, eta gu negozioa abandonatzeko zorioan egon ginen.

Erregaiaren prezioak ere izugarri egin du gora, ez da errentagarria traktorea piztea ere. Ongarriak ere garestitu dira... Denak egin du gora!

Udaletxeak ere egundoko trabak jarri izan dizkigu. Nik lehen baserrian txerria hil eta odoloste batzuk banituen soberan, arazo barik jaitsi ahal nituen azokara, orain ezinezkoa dut hori. Osasun ziurtagiria atera behar izan dut etxean ditudan hogeioi olioentzako, 5.000 oilo dituen baserriar handi batek bezain beste ordaindu behar dut, eredu industrialak ari dira sustatzen. Lehen baserriarrok haien soberakinak jaisten ziren merkatura, orain esplotazio handien exijentziak bete behar ditugu lau sagar saltzeko. Bide honetatik jarraitzen badugu, baserri txikiak desagertu eta eredu industrialak gailenduko da.

erreportajea

Zer iritzi duzu azken asteetako lehen sektoreko mobilizazioen inguruan? Bat egiten duzu?

Mobilizatzea beti dago ondo, tira. Baina badaude ondo ikusten ez ditudan gauzak. Azken asteetako mobilizazioak urrutitik jarraitu ditut. Ni ekoizle txikia naiz, eta baserritar txikiok soberan gaude horien aldarrikapenetan.

Nolakoa da eskualdeko baserritarren egoera gaur-gaurkoz?

Nahiko txarra, egia esan. Konpondu beharreko lehenengo gauza gudan dago, guk geuk ez dugu gure burua baloratzen eta.

Gazteak behar ditugu lehen sektorean lanean, baina egoera oso zaila da. Esango nuke ia ezi-

nezkoa dela ustiategi bat zerotik hastea, burkorazia asko dago tartean eta lursailak oso-oso garestiak dira. Nik zorrea izan nuen etxean banituelako lantzeko lurrak, baina mundu guztia ez dago egoera berdinean.

Gehiago erreparatu beharko liokete baserritar txikiari, baina trabak besterik ez ditugu inguruan. Badirudi administrazioetik nekazarizta eredu industrializatua bultzatu nahi dutela, eta hori ez da bidea. Txikia defendatu eta salmenta-zuenaren aldeko apustua egin behar dugu. Nik bi merkatutan saltzen ditutu nire produktuak; Amurrión eta Gasteizen. Gainerakoa baserrian saltzen dut.

ALBERTO CAMPO

“Azken mobilizazioak urrutitik jarraitu ditut, ekoizle txikiok soberan gaude horien aldarrikapenetan”



JOSE RAMON MARTINEZ

Zer iritzi duzu azken asteetako lehen sektoreko mobilizazioen inguruan?

Tristea da horrelako mobilizazioak egin behar izatea, baina argi geratu da beharrezkoak direla. Lehen sektorea itota dago, gainera, traba eta burkorazia asko dago tartean eta horrek ez gaitu inondik inora laguntzen.

Nola ikusten duzu tokiko ekoizleen egoera?

Ekoizle txikiok nahiko egoera zailaren aurrean gaude. Ez dago belaunaldi aldaketarik. Alde bateatik, normala ikusten dut jende gaztea ez animatzea; jarduera errentagarria da gurea, baina oso lan esklaboa eta prekarizatua da.

Zeintzuk dira zuen eguneroko zailtasun handienak?

Sektore zaharkitua gara, eta ez gaude teknologia berrietarako prestatuak. Burkorazia gehiena, ordea, Internet bidez egin behar dugu.

Produktzio kostuen igoerak ere asko kaltetu gaitu. Guk transformazioa egiten dugu eta behartuta ikusi dugu gure burua gazten prezioak igotzera. Jendeak ez du hori begi onez ikusi, baina errealitatea desberdina da mostradorearen alde batean edo bestean.

Salmenta zuzena baliatzen duzu zure produktuak saltzeko. Zer balio ematen diozu horri?

Salmenta-zuzenari esker guk mozkin handiagoak lortzen ditugu eta kontsumitzaileek hobeto ezagutzen dute produktua. Bitartekorik gabe denok irabazten dugu.

Tokiko produktuen inguruko kontzientzia zioa falta da, baina momentu ekonomikoa ez da ona herritarrentzat.

“Tokiko produktuen inguruko kontzientzia zioa falta da, baina momentu ekonomikoa ez da ona herritarrentzat”

BORJA HERNANDEZ SANTA CRUZ

Zer iritzi duzu azken asteetako lehen sektoreko mobilizazioen inguruan?

Mobilizazioek ez gaitzute zuzenean interpelatzeko. Nekazal enpresetako jendea da mobilizatu denak, eta gureak ez diren beste borroka batzuen alde atera dira kalera. Adibidez, pestiziden erabileraren alde borrokatu dute, eta guri hori ez zaigu gustatzen. Pixka bat bitxia da.

Bai konpartitzen dugu, adibidez, sektoreak duen gehiegizko burkoraziaren kontra egotea. Lehen sektorean lanean hasi nahi duen gazte batek urtebete eman behar du paperak betetzen, eta administrazioek hori arindu beharko lukete. Horrekin ados gaude, gainerako aldarrikapenekin ez hainbeste.

Enpresa handiak dira mobilizatu direnak, traktore asko eta dirulaguntza asko jasotzen dutenak, askok landatzen dutena jaso ere egiten ez dutenak. Gure nekazal ereduaren kontrakoa dira, nolabait.

Zein da zuen egoera? Zer zailtasun dituzte?

Guretzat, adibidez, ez da dirulaguntzarik iristen, eta ezinbetsekoak ditugu belaunaldi berriak nekazaritzara batu daitezen.

Burkorazia da dugun trabarik handiena, hori arintzeko alternatibak inplementatu beharko lituzkete. Gaur-gaurkoz nahiko pozik gaude Udalarekin, asko inplikatu da gu laguntzeko.

Zein izan da azken urteetako bilakaera sektorean?

COVID-19aren pandemiaren geroztik, ekoizleak desagertu dira. Lau-dikoko merkatuan bi postu gutxiago gaude. Nekazaritzak ez du bizitzeko adina ematen, pobreziaren mugan bizi gara.





ZURIÑE ORTUETA

Zer iritzi duzu azken asteetako lehen sektoreko mobilizazioen inguruan? Bat egiten duzu?

Nik protestak ondo ikusten ditut. Nik beti protestatu du, eta batu izan naiz mobilizazioetara; baina ez orain bakarrik, betidanik. Beti aldarrikatu izan dut burokrazia gehiegi pairatzen dugula, ulertzen dut kontrolatu behar gaituztela baina izugarria da bete beharreko paper kopurua. Are tristeagoa da ikusten duzunean ekoizle handiekin hain zorrotzak ez direla. Guztioi berdin tratatu beharko gintuzkete. Oso bidegabea iruditzen zait egoera.

Zer behar dituzue tokiko ekoizleek?

Pandemiaz geroztik eta azken urteetako gerren ondorioz, erregaiak, argindarrak... denak egin du gora, eta guk, ezinbestean produktuen prezioak igo behar izan ditugu. Lehengaien prezioak erregulatu beharko lituzkete, guk gehiegizko kostu hori bezeroaren gain ez kargatzeko.

Salmenta zuzena baliatzen duzu zure produktuak saltzeko. Zer balio ematen diozu horri?

Nik gazta gehienak salmenta-zuzenaren bidez

saltzen ditut, Amurriokoa da postua jartzen dudana azoka bakarra eta gainerakoa lau saltoki txikitan uzten dut.

Salmenta-zuzenak ekoizle eta bezeroaren arteko harreman estua sortzen du. Bezeroak bertatik bertara ezagutu dezake, kasu honetan gaztaren ekoizpen prozesua nolakoa izan den, eta edozein zalan-tza argitu.

“Guztioi berdin tratatu beharko gintuzkete. Oso bidegabea iruditzen zait egoera”



%21,8

Euskal Autonomia Erkidegoan %21,8 jaitsi da nekazaritza ustiategiaren kopurua 2009tik 2020ra bitartean.



4 nekazaritik 1 emakumea

Horrez gain, emakumeen presentzia bost puntu jaitsi da ustiategietako buru gisa, %25,6ra, eta **batez besteko adina ia 60 urtekoa da.**



Aiarako Kuadrillako biztanleria okupatuaren

%1,84

-k baino ez du jarduten nekazaritzaren esparruan gaur egun. **276 pertsona** ziren guztira 2022an. Gehienak gizonezkoak (183), emakumezkoak 93.

Baserritarren azokak:

LAUDIO

Ostegunero eta larunbatero (jai-egunetan izan ezik), Aldai plazan.

URDUÑA

Hilabeteko lehen larunbatean, Foru plazan.

AMURRIO

Ostiralero, Juan de Urrutia plazan.

ARTZINIEGA

Hilabeteko azken igandean, Gari plazan (euria egiten badu Toñin Luengas frontoian).

OROZKON

Hiruhilean behin, bana urtaroko, Zubiaur plazan.

herriz herri

Laudio

Laudioko Udal Gobernu Taldeak salatu du Osasun Saileko buruak ez zituela erantzun mahaigainean jarritako arazoak. Osakidetzak beste bertsio bat plazaratu du.

Gotzone Sagarduirekin izandako bilerak ez du "emaitza positiborik utzi" Laudioko Udalaren esanetan

Testua **Aitor Aspuru Saez**

David Hernandez laudioarraren heriotzaren harira, Laudioko Udaleko ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko arduradunak elkartu ziren atzo Bilbon. Izan ere, urtarrilaren 12an zendu zen 42 urteko gizon zkoa Laudioko anbulatorioko Etengabeko Arreta Gunean, mediku baten laguntza jaso gabe.

Bilerari dagokionez, Osasun Saileko sailburuarekin, Gotzone Sagarduirekin, sailburuaren kabinete buruarekin, Imanol Zuluaga Zamalloarekin, eta Osakidetzako zuzendariarekin, Rosa Perez Ezquerdorekin, batu ziren Ainize Gastaka alkatea, Alvaro Barrios lehen alkateordea eta Nagore Gomara Zehar kaka Politiken zinegotzia.

Laudioko anbulatorioaren egoera aztertzea izan zen hitzorduaren helburua. Tokiko erakundeko ordezkariak hiru gai jarri zituzten mahaigainean, prentsa ohar batean adierazi dutenez: "Etengabeko Arretako Gunean (EAG) medikuen presentzia bermatzea, pertsonal medikurik ez dagoenean herritarrei behar bezalako informazioa ematea eta Osakidetzarekin hitz egiteko lerro bat ezartzea, Laudiorako proiektatutako anbulatorio berriari giza baliabideen eta zerbitzuen hornidura egokia bermatzeko".

Erantzunik ez

EH Bilduk eta Omnia osatzen duten gobernu koalizioak zabaldu du Osasun Sailak ez zela erantzun egindako aldarrikapenei, eta "etsipena" adierazi du horregatik.

Batasuna eskualdean

Ainize Gastaka alkateak honako azpimarratu du: "Laudion eta eskualdean zerbitzua ziurtatu behar dugu. Erreferentziarako anbulatorioa izango gara eta, osasun langileez gain, medikuen presentzia bermatu behar dugu". Horregatik, hain zuzen, Aiaraldeko toki-



Mobilizazioak egon ziren urtarrilean salatzen 42 urteko gizon bat hil zela Etengabeko Arreta Gunean medikurik ez zegoenean. [Aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)

koerakunde erantzun bateratua sustatuko du Laudioko Udalak.

Hasteko, bilera egingo dute inguruko udalekin, euren kezkek partekatzen. Horrez gain, Arabako Sendagileen Elkargoarekin ere harremanetan jarriko dira: "Izan ere, atzo bertan, elkargoa kezkatuta agertu zen Osasun Administrazioak urtarrilaren 12an Laudion gertatutako ari emandako erantzunen ostean".

Osasun Sailaren bertsioa

Bere aldetik, Osasun Sailak oharra zabaldu du salatzen Laudioko Udalak bertsio partziala eskaini duela. Hain zuzen, osasun erakundeak argudiatu du ordezkariak identifikatu zituela bien arteko komunikazio bizia egoteko, Udala-

ren eskaerari erantzunez. Honako adierazi du Osakidetzak oharraren: "Osasun Sailarentzat garrantzitsua da bermatzea osasun erantzuna egotea edozein kasuan, medikua egon edo ez, une jakin batean, eta arreta hori bermatuta dago". Adierazpen horiekin Osakidetzak larrialdiz zerbitzuetan medikua egon dadin hartutako konpromisoa adierazi nahi zian du, Laudioko Udalak salatutako ari kontrajarriz.

Zehazki, azalpen hori honako adierazpenekin osatu du osasun erakundeak: "Osasun Sailak Laudioko Udalarik gogorarazi zion, askotan azaldu den bezala, ez dagoela familia-medikuntzako espezialista nahikorik Osakidetzak eskaintzen dituen plaza guztiak betetzeko; ho-

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak oharra zabaldu du Laudioko Udalak egindako adierazpenak baloratzen. Bere ustez, tokiko erakundearen bertsioa partziala da

regatik, Osasun Sailaren erantzuna izan zen Laudioko Etengabeko Arreta Guneako pertsona bat kontratatzen prest dagoen bitartean, egingo dela, Osakidetzako protokoloetan EAG hori lehentasunezko zentroa delako. Medikuntzako lanpostu bat bete ezin denean, arreta erabat bermatuta dago gainerako osasun sarean: etxeko arreta, gertuko EAG, anbulantziak eta larrialdietako helikopteroa eta ospitaleko larrialdiak".

Larrialdien informazioa

Azkenik, Osasun Sailak aipatu du protokoloa eta aplikazioa prestatzen ari dela anbulatorioen eta Etengabeko Arreta Guneen gaineko informazioa eskaintzeko herritarrei.

Laudio

Bi Goya sari eskuratu ditu Esti Urresola laudioarrak, herrikideen berotasuna lagun



Esti Urresola Goya saria eta Gazaren aldeko pegatinarekin. Premios Goya

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Zuzendari hasi berri onenaren eta gidoi onenaren Goya sariak esku artean dituela itzuli da etxera Esti Urresola zinemagilea. Duela urtebete Berlineko Nazioarteko Zinema Jaialdian abiatutako bide arrakastatsuan mugarri berria jarri du zinemagile laudioarraren lehenengo film luzeak. Zuzendariak lortutako bi sariak ez ezik, hirugarren estatuatxo bat ere etxeratu zuen *20.000 especies de abejas* filmak, Ane Gabirainek irabazitako aktore zerrendako onenaren Goya saria.

Opera prima batek inoiz izandako izendapen kopuru handienarekin —15— abiatu zen Urresolaren lan-taldea Valladolideko sari banaketara. Espainiako Zinema Akademiak, ordea, Juan Antonio Bayonaren *La Sociedad de la Nieve* goraiatu du gehien, film onenaren sariarekin, besteak beste.

Gazako sarraskia gogoan

Urresolak Palestinako herritarraz zituen gogoan bere lehenengo hitzartzean, paparrean Gazaren aldeko pegatina bat jantzita zuela. Sortzaile laudioarrak azaldu zuen gauzei dagokien izena emateak duen garrantziak jarduten duela *20.000 especies de abejas* filmak; eta, modu berean, Israelek Gazako herritarren aurka darabilen sarraskiari ere genozidioa deitzea eskatu zuen.

Babesa Laudiotik

Esti Urresolak Laudioko bizilagunen berotasuna eskertu zuen gidoi onenaren saria jasotzean. Hain zuzen ere, Laudioko Udalak sari banaketa ekitaldia zuzenean jarraitzeko pantaila erraldoia jarri zuen Alberto Acero enparantzan, eta Urresola animatzeko milaka pegatina banatu zituen herri-tik. Asko eta asko izan ziren ere bere burua erlez mozorrotu zutenak, ostalari eta komertzio ugari tartean.



ESTI URRESOLA
ZUZENDARIA

Zinemagilearekin eginiko elkarrizketa, hemen ikusgai



Abastos Plazaren Europako dirulaguntza baliatzeko luzapena lortu du Laudioko Udalak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ez dago galduta Abastos plazaren eraberritzera bideratutako Europako Next Generation funtsen dirulaguntza. Laudioko Udalak jakinarazi duenez, abenduaren 31ra arte luzatu da obraren %60 egiteko epea. Baldintza hori betetzen badu, 1,6 milioi euroko dirulaguntza mantenduko litzateke. Hala jakinara-

zi du Estatu Gobernuako Merkataritzako Idazkari den Xiana Margarida Mendezek, tokiko erakundeak azaldu duenez. Epe berri horiek betetzeko, urrats garrantzitsua eman dute gaur goizean bertan, obra nori esleitu proposatu baitu Udala kontratatzei Mahaiak. Aurreikuspenak betetzen badira, Altuna y Uria eta Hormak enpresek osatutako Aldi Baterako Enpresa Elkarteak egingo ditu lanak, anbulategi berriaren

lizitazioa irabazi duen talde berdina. Horrez gain, nabarmentzekoa da Altuna y Uria dagoela baita antzokiko obraren atzean. Plaza erabat berregituratzea izango da obraren xedea, eta hainbat berrikuntza sartuko dira, hasierako proiektuan aurreikusten ez zirenak. Izan ere, partaidetza prozesua abiatu zuen Udalak iaz, eta bertan jasotako ekarpen ugari txertatu dituzte egitasmoaren azken bertsioan.

PROIEKTU BERRIAK, AUKERA GEHIAGO,
ESKUALDE-OREKA HANDIAGO

EUSKADIK ZAP EGITEN DU!

Lehentasunezko Jarduketa-Eremuetarako Trakzio-proiektuak

#A8 AIARALDEA NERBIOIKO IBAI PARKEA

Gainera, ZAP Aiaraldean...

Industria eta industria eraikinen modernizazioa / Nekazaritzako elikagaien sektorea / Turismo sektorea / Kultur sektorea / Lanbide Heziketa / Etxebizitza sozialak / Auzo kalteberak birsortzea

Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala AMURRIO Arakaldoko Udala ARRANKUDIAGA ZOLLO ARTZINIEGA LAUDIO UDALA OKONDO orozko URDUÑA

INFORMAZIO GEHIAGO

araba álava Bizkaia Euskadi, auzolana EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

herriz herri

Aiaraldea

Euskararen semaforoa sortu dute, ekintzak antolatzeko orduan hizkuntza eskubideei arreta jartzen hasteko



Semaforoaren figura erabili dute ekitaldiak hizkuntzaren erabileraren arabera sailkatzeko. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Tresna berria jarri du abian Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak: Euskararen Semaforoa. "Herritarren, elkarten, entitateen, antolatzaileen eta instituzioen eskura" egongo da baliabide hori, eta "berehalako informazioa" emateko balioko du, eskaintza zehatz baten gaineko "hizkuntza aukei buruz".

Hala azaldu du Kontseiluak prentsa ohar baten bidez. Funtsan, eskualdean zein eskualdetik kanpo antolatzen diren ekintzak semaforo baten koloreen arabera sailkatzea planteatzen du egitasmoak. Baliabide kutxa sortu dute horretarako, eta "edozein entitate, elkarte edo norbanakori" luzatu diote erabiltzeko gonbita, eta baita atxikimendu hori publi-

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak sortu du tresna eta baliabide kutxa, eta herritar, elkarte orori luzatu die erabiltzeko gonbita

ko egiteko ere, #euskararenSemaforoa traola erabilita.

Ekimenaren sustatzaileek uste dute ekimenak balioa-ko duela "euskarazko eskaintza eta kontsumoa" bultzatzeko, eta "nabarmen eta agerian" utziko duela "alor batzuetan euskararen eskaintza handitzeko beharra".

Horri lotuta, Kontseiluko kideek aldarrikatu dute beharrezkoa dela hizkuntza eskubideengan ere arreta jartzea ekintza bat programatzeko orduan. "Bide berriak zabaldu behar dira baita, adibidez, erdaraz eskaintzen den hitzaldi batean publiko euskaldunak galderak bere hizkuntzan egiteko aukera bermatuz; edo erdaraz eskaintzen den ikastaro batean, ikasleari euskaraz mintzatzeko aukera emanaz, irakasle elebidunak kontratatuz", aipatu dute.

Kutzazain berriak jarri nahi dituzte Luiaondon, Okondon eta Arrankudiaga-Zollon



Hernando Lacalle sailburuorde laudioarra aurkezpenean. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Kutzazain automatikoak instalatzeko laguntza-lerro bat atondu du Eusko Jaurlaritzak, finantza erakundeek mota horretako azpiegiturak ireki ditzaten landa eremuetan. Euskal Autonomia Erkidegoko 64 udalerritan jarri nahi dituzte kutxazainak; Aiaraldeko hirutan, besteak beste: Aiatan (Luiaondon), Okondon eta Arrankudiaga-Zollon.

Pedro Azpiazu Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak iaz jakinarazi zien finantza-erakundeek ekimen hau martxan jarriko zutela, "landareremuen hazkunde-eta biziberritze-prozesuan" laguntzeko.

Arabako Navaridas herrian aurkeztu zuten ekimena iragan astean, Kutxabanken kutxazain berri baten inagrazio ekitaldia probestuta. Bertan egon zen Hernando Lacalle laudioarra, Finantza eta

Aurrekontuetako sailburuordea dena. Berak azaldu zenez, "benetako finantza-inklusio baten alde lan egitea" izango da helburua. "Izan ere, banku-zerbitzuak ematen dituzten erakundeen presentziak aurrezkoa, familien inbertsioa eta enpresa-proiektuen garapena sustatzen du, eta horrek, aldi berean, eremu osoaren aurrerapen ekonomikoari laguntzen dio", aipatu zuten.

Azken urteetako joera

Kutzazainen gabeziak gorabehera asko sortu ditu Aiaraldean azken urteetan, Kutxabanki dagokionez batez ere. Finantza erakunde horrek eskualdeko hainbat bulego eta kutxazain kendu ditu. Azken urratsa iaz eman zuen, Latorron zegoen kutxazaina kenduta.

Horren aurrean, bizilagunen protestak egon dira, Okondo, Areta zein Artziniegako bulegoak itxi zituztean, besteak beste.

Aiara

Aiarar batek salatu du urtebete baino gehiago itxaron behar izan duela kontrolerako kolonoskopia egiteko



Kolonosopia egiteko ia urte eta erdi itxaron du aiarrak. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

J. R. S. aiarrak Aiara Komunikabidearekin jarri da harremanetan salatzeke ia urte eta erdi itxaron behar izan duela kontrolerako kolonoskopia egiteko. Zehazki, bere medikuak 2022ko abenduan eskatu zuen zita eta aurtengo apirilera arte ez diote egingo. Bere ustez, ez da onargarria horren luzea izatea itxaronaldia.

Berez, Aiara herriarrak 2015ean izan zuen ebakuntza: "Kolonoskopia egin zidaten eta bi polipo kendu zizkidaten, baina hirugarren bat kentzeko gai ez ziren izan. Hortaz, hestearen zati bat moztu eta berriro lotu zidaten".

Horren ostean, kontrolerako bi kolonoskopia egin zizkieten eta ez zen tumoririk agertu. Hori bai, 2018an adierazi zioten 2023ko lehen hila beteetan egin behar zuela beste bat. "Duela bost urte progra-

matu zidaten prozedura", argitu du aiarrak.

Gauzak horrela, 2022ko abenduan eskatu zuen bere medikuak zita eta horrezkeron hiru erreklamazio aurkeztu ditu J. R. S.-k: "Azken idatziz izan zen eta Amurrioko ambulatortik heldu zitzaidan eskutitza, esanez digestibora bideratuko zutela nire kasua. Amurriora bertaratu nintzen eta azaldu nuen ez nuela diagnostiko berririk behar, baizik eta proba egitea, aurreikusita zegoena. Orduan Usansoloko Ospitalera deitu zuten eta erantzun zieten itxaron zerrrendan nengoela. Hori uztailean izan zen".

Geroztik ez du berririk izan astelehenera arte: "Beste hitzordu bat eskatu behar nuen eta esan zidaten apirilean izango dela kolonoskopia", argitu du aiarrak. "Nire kasua publiko egitea erabaki dut ikusita Laudion gertatu zena eta hau ez dela bidezkoa, nire ustez", aipatu du.

Kaos Etilikok joko du sanprudentzioetan eta Aiara Dantza Taldea izango da pregoilaria

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiarako Udalak herriko jaien egitarauko zenbait datu iragarri ditu jadanik. Izan ere, lanean ari dira ekintza guztiak lotzeko eta kontzertu nagusien protagonistak jakinarazi dituz-

te dagoeneko. Esaterako, txupinazoan Akerbeltz erromeria eta DJ Markelin egongo dira, apirilaren 26an. Hurrengo egunean, 23:00etatik aurrera, Kaos Etilikok hartuko du oholta eta gero eskualdeko taldeek ere joko dute. Igandean, aldiz, ohitura-ri jarraiki, Patxi Perezek dan-

tza plaza bideratuko du folk talde baten laguntzaz. Aurten Aiara Dantza Taldearen 40. urteurrena izango da eta, hori dela medio, elkartearen ardura izango da pregoia irakurtzea. Gero Aitor Aspuru Etxegoiengo trikitalariak (dantza taldeko kidea ere badena) jaurtiko du txupina.

BABESTUTAKO EDUKIA

m
Mondragon
Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

“Humanitate Digital Globalak graduak ez dugu azterketarik egiten eta eguneroko lana da baloratzen dena”

ASIER BRINGAS RENEDO (Amurrio) HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK (HDG) GRADUKO 2. MAILAKO IKASLEA DA MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

Humanitate Digital Globalak - HDG graduko 2. mailan zaude, zergatik aukeratu zenuen gradu hau eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Batxilergoa amaitu nuenean, ez neukan oso argi zer egin nahi nuen eta hainbat graduri buruz informazioa bilatzen hasi nintzen. Baina Humanitate Digital Globalak graduaren berri izan nuenean, interesgarria irudituz zidana eta, besteekin alderatuta, metodologia ezberdina zuen.

Gainera, ideia on irudituz zidana Mondragon Unibertsitate bezalako unibertsitate berri baten aldeko apustua egitea, etorkizuneko lanpostuetarako prestatuko nauela pentsatzen dudalako.

Nolakoa izan da orain arte bizitako esperientzia?

Orain arteko esperientziarekin oso pozik nago; arlo akademikoaz gain, pertsona gisa hazten ari naiz, gaitasun eta ezagutza desberdinak ikasten eta garatzen.


Lehen urtea zailagoa izan zen niretzat, aurretiaz landu gabeko metodologia batean barneratu bainintzen. Baina orain gehiago integratuta nago eta gehiago ezagutzen dut metodologia hori. Beraz, primeran lan egiten dut eta oso pozik nago nire eboluzioarekin.

Zein metodologia erabiltzen duzue?

Gradu honetan ez dugu azterketarik egiten eta eguneroko lana da baloratzen dena. Lan egiteko modua askoz hobea iruditzen zait erronkei aurre egiteko eta gaieko interesa mantentzeko; izan ere proiektuekin, elkarriketekin edota arloko profesionalen hitzaldiekin lan egiten dugu.

Irakasgai bakoitzeko metodologia aldatu egiten da. Batzuk besteak baino teorikoagoak direlako baina, azkenean, irakasten ari garen gaietara egokitzen dira.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?



Egia esan, orokorrean oso pozik nago irakasleek jokatzeko duten paperarekin. Zu zeu gehiago ezagutzen saiatzen dira; beraz, zure ahulguneei buruz gehiago jakinda, hobetzen eta zure gaitasunak ateratzen laguntzen dizute.

Etorkizunari begira zein asmo daukazu?

Egia esanda, momentuz ez daukatezer argi, oraindik kurtsoak gertatzen zaizkidalako gradua amaitzeko. Baina momentuz arlo digitala da gehien gustatzen zaidana; beraz, agian, adar horretara joko dut.

herriz herri

Orozko

Orozkoko LGTBI+ kolektiboko herritarren egoera ezagutzeko diagnostikoa abiatu du Udalak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Orozkoko Udalak otsailean abiatu du prozesua herriko LGTBI+ kolektiboaren egoera ezagutzeko. Hau lehen urratsa izango da gero neurriak hartu ahal izateko, udalerrria ahalik eta bizigarrien izan dadin herritarguztientzat.

Azterketa Hiruki Larroxa kooperatibak hartu du bere gain eta parte hartze esparru anitzak prestatu dituzte. Alde batetik, herritar orori zabalduko galdetegiak abiatu dute LGTBI+ kolektiboaren kanpo eta barne egoera (ezagutza, pertzepzioa, bizipenak...) analizatzeko. Internet bidez bete daiteke.

Horrez gain, otsailaren 27an

hitzaldi tailerra antolatuko dute hirietatik at dagoen LGTBI+ kolektiboaren egoera lantzeko, 18:00etan.

Azkenik, kolektibo horren ki-deek berezko lanketa egiteko parada izango dute. Horretarako orozko.lgtbi@bizkaia.org helbide elektronikora idatzi beharko dute eta gero harremanetan jarriko dira eurekin.

Artziniega

Abuztuaren 30etik irailaren 8ra luzatuko dira Artziniegako Jaiak, eta hauek antolatzeari ekin diote



Jaien antolakuntzaz arduratuko den komisioa osatu dute. Aiaraldea.eus

Testua
Almar Gutierrez Bidarte

Hasi dituzte aurtengo Artziniegako Jaiak prestatzeko lanak. Festak noiz ospatu zehaztea izan da lehen urratsa. Izan ere, EAJren udal taldeak proposamena aurkeztu zuen aurrerantzean iraileko lehenengo ostirala izan zedin jaietako lehenengo eguna. Neurri horrekin, ospakizunak abuztuaren hasiera hasten nahi zuen taldeak jaiak irailaren 6an hasi-ko lirakeke.

"Proposamen horren aurrean bilera irekia deitzea erabaki genuen, herritarren iritzia jasotzeko", azaldu dio Joseba Vivanco alkateak Aiaraldea Komunikabideari. Auzokideen iritzia entzun ostean, aurtengo jaiak ohiko egutegiarekin mantentzea erabaki du Udal Gobernuak. "Herritarren iritzia izan zen, aurtengo behintzat, jaien egunak dauden be-

zala mantentzea. Aurtengo abuztuaren 30ean hasiko dira jaiak eta irailaren 8an bukatu", adierazi du gobernuburuak, etorkizunean gaia berriro eztabaidatzeari atea itxi gabe.

Antolakuntzan burubelarri

Lehenengo erabakia hartuta, jaien antolakuntzan murgildu dira Artziniegako jaiak. Bilera egin zuten aurreko astean, jaien antolakuntzaz arduratuko den lantaldea osatzeko. "Gure nahia beti izan da herritar talde batek batzorde bat osatzea eta jaien antolakuntzaz arduratzea. Iaz ez genuen lantalde hori sortzea lortu eta Udalak antolatu zuen jaietako egitaraua, baina horiez da hobesten dugun eredu", nabarmendu du Vivanco.

Aurtengo jaiak, lortu dute komisio hori osatzea, herritar talde txiki bati esker. Talde sortu berriak bere gain hartuko du 2024ko festen antolakuntza, Udal Gobernuaren laguntzarekin.

**KULTUR
FAKTORIA**
KONTZERTUAK

Eskuratu zure
sarrerak
www.faktoria.eus



ASSATA

Otsailak 24,
zapatua

22:00etan
Ate irekiera 21:30

Sarrerak:
Bazkideek 6€ / Ez-bazkideek 8€

Martxoak 23,
zapatua

22:00etan
Ate irekiera 21:30

Sarrerak:
Bazkideek 8€ / Ez-bazkideek 10€



ITHAKA



Kantinan
edaria!

F

FAKTORIA



Errotari kalea, 4-8 pabilioia, Laudio (Araba)
633 517 383 | kultura@aiaraldea.eus
www.faktoria.eus

#BizitzekoFaktoria
#AmestekoFaktoria

Amurrio

Kultura eta sormen ekosistemaren mapa osatzeari ekingo dio Amurrioko Udalak

Amurrioko udalbatza aretoan aurkeztu zuten ekimena. Aiaraldea.eus

Testua
Almar Gutierrez Bidarte

Amurrioko kultura eta sormen ekosistema aztertu eta sarretuko du Amurrioko Udalak. Amurrioko Kultur Plan Estrategikoaren barruan txertatuko dute ekimena, "artisten, sortzaileen eta kultur-erakundeen parte-hartzea sustatzea" helburu.

2021ean onartu zen Kultur Plan Estrategikoa eta Udalak mugarriztat jo du dokumentua. "Erreferentzia markoa definituta, herriko industria kulturala osatzen duten eragileak nortzuk diren eta non dauden identifikatzea" du erronkatzat Udaleko Kultura Arloak.

Aurkeztutako ekimen berri honen bitartez, sektoreari ikusgarritasuna ematea da tokiko erakundearen asmoa, baita hausnarketa estrategikorako datuak biltzea ere.

Conexiones Improbables

Proiektua garatzeko, Conexiones Improbables-ekin lankidetzan arituko da Udala, "ekonomia sortzailean" espezializatutako Arabako aholkularitza enpresa. Sorkuntza ekosistemaren mapa osatzeko Kultursistema plataforma digitala baliatuko dute, eta horren gainean osatuko dute udalerriko mapa propioa.

"Baliabide hori Udalaren webgunean txertatuta egongo da, eta herritarrentzako kontsultarako eta harremanetarako tresna gisa baliokoa du, kultur-eragileekin aniztasuna erakutsiz, eremu publikoan zein pribatuan eta sozialean", azaldu zuten atzo aurkezpenean.

Saio irekiak

Kultursistema plataformarekin ez dituzte kultur gileak

soilik identifikatu nahi, haiekin lan ere egin nahi dute. Bilan-saio programatu dituzte horretarako. Martxoaren 7an saio telematiko egingo dute Zoom plataformaren bidez, 18:00etan. Martxoaren 12an, aldiz, aurrez aurreko saioa izango da, Reforren.

Parte hartu nahi duen orok izena eman beharko du Internet bidez. Beste bi bide daude lan-saioetan izena emateko: hola@kultursistema.com helbidera mezu elektronikoa bidaltzea edo 673 608 790 telefonora deitzea.

Udaleko Kultura Arloak gonbidapena luzatu die herriko sormen eta kultura arloetako pertsona eta erakunde guztiei ekimenean parte hartzeko: "Prozesu horren helburu nagusia da beren lanaren ikusgarritasuna areagotzea eta komunitatean dtuen eragina neurtzea".

Urduña

417 sinadura bildu dituzte Urduñako haurreskola publikoaren ordutegia alda dezaten

Ikasturteko ordutegiak aldatu dituztela salatu dute. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Urduñako Haurreskola Publiko gurasoek sinadura bilketa abiatu zuten urtarileko azken asteetan, Hezkuntza Sailak zerbitzuaren ordutegiak aldatu zituela eta horrek familien kontziliazioa zailtzen duela salatzeko.

Otsailaren 9an bukatutzat jo zuten bilketa, hezkuntza zentroan bertan, Urduñako zenbait establezimendutan eta Aiaraldeko Eskola Publikoaren aldeko jaietan egon ostean, besteak beste. 417 lagunen babesa jaso dute guztira. Jokin Bildarratz Hezkuntza Sailburuari bidaliko dizkiote jasotako atxikimendu guztiak.

Salaketaren arrazoiak

Izaro Otaegi Tapia gurasoen ordezkariak azaldu du ordutegiak okerrera egin dutela indarrean dagoen ikasturtean, eta nabarmen, gainera. "Aurreko ikasturtean umeak sartu ahal ziren 07:30etik 10:00ak arte. Orain

beranduago irekitzen dituzte ateak, 08:00etan, eta 09:30ean beranduenez egon behar dira barruan".

Horrez gain, arratsaldeko ordutegia ere murriztu dute: "Iaz 16:30 arte zegoen irekita Haurreskola eta, hiru ume edo gehiago egonez gero, 17:00ak edo 18:00ak arte. Orain, aldiz, 14:00etan bukatzen da zerbitzua, edota 16:00etan, hiru ume edo gehiago badaude".

Gauzak horrela, Otaegik argitu du aldaketa zerbitzuaren doakotasunarekin batera heldu dela: "Ustez, arau berriaren xedea kontziliazioa erraztea da, baina txandaka lan egiten duten gurasoek ez dute aukerarik ordutegi horietara moldatzeko eta, ondorioz, bestelako bideak bilatzera behartuak izan dira".

Horrek eragin zuzena izan du matrikulazioan. Haur gutxiagok eman dute izena, bitarteko pribatuetara jo behar izan dutelako guraso askok. "Horiek ez dute ordutegi mugarik", nabarmendu du Izaro Otaegi Tapiak.

QUICK PC REPAIR

Informatika argi eta erraz



**ETXEZ
ETXEKO
ZERBITZUA**
gainkosturik
gabe

· Salmenta · Konponketak

· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxetarako

· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketaren diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **RENOVE PLANARI** buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickpcrepair.es · quickpcrepair@quickpcrepair.es

elkarrizketa

“Badago lehiatzeko entrenatzen duen jendea, baina nik nahiago dut horren atzean dagoen eraikuntza”

JATSU GUARESTI LANDETA (Amurrio, 1987) TXAKUR HEZITZAILEA DA ETA MONDIORINGEAN SARTU DA BURU BELARRI. KIROL HORREN NONDIK NORAKOAK AZALDU DITU.



Testua
Txabi Alvarado Bañares

Hasteko, zer da mondioringa?

Bada kirol bat non nahasten diren obediencia, salto eta babes ariketak. Ariketa bakoitzean badaude bizpahiru figurante, babes jantziekin, eta txakurrek hozka egin behar diete, baina ez edozein modutan, araudiaren barruan zehaztutako modu batzuetan baizik.

Ez da oso kirol ezaguna, baina geroz eta gehiago zabaltzen ari da. Orain dela asko lotuta zegoen txakur-erentzako polizia-programei, baina gaur egun edozeinek egin dezakeen kirola bilakatu da, eta hazten dabil apurka, afizioa handitzen, edozeinek egin dezake.

Hobekien hozka egiten duen txakurrak irabazten du, beraz?

Ez zehazki. Gauza asko sartzen dira araudiaren barruan. Badago ariketa bat badela txakurraren jabearen babesa. Epailak eszenatoki bat diseinatzen du, txapelketa bakoitzean aldatzen dena. Ariketa zehatz honetan, txakurra jabearen inguruan egon behar da, noiz erasotuko duten zain, eta orduan egin behar du hozka.

Beste ariketa bat figurantearen bilaketa da, topatzen duenean egin behar du zaunka...

Ariketa horiek lehenagotik dakizkizue edo txapelketan bertan planteatzen dizkizute?

Kirol honen ezaugarri bereziena bada aldakortasuna. Txapelketa bakoitzean eszenatoki ezberdinak asmatu daitezke. Horretan datza erronka, inoiz ez dugulako amaitzen egon daitezkeen egoera ezberdin guztiak entrenatzen.

Nola entrenatzen duzue orduan?

Jokaera konkretuak lantzen ditugu. Arau batzuk daude, baina arau horien barruan aldakortasun handia dago. Badago ariketa bat badela objektu baten babesa. Txakurrari aulki bat jartzen diozu, adibidez, babestu dezan. Baina beste txapelketa batean edozein objektu izan daiteke, txakurrari mina egingo ez dio betiere.

Beste ariketa mota batean, txakurrak eraso egin behar dio figuranteari, eta hau saiatu behar txakurraren hozkada saihesten. Plastikozko botak ahal zaizkio txakurrari, edo ur balde bat... txakurra denetara ohitua egon behar da, eta horretan datza zailtasuna, inoiz ez duzulako amaituko egoera posible guztiak entrenatzen. Lan ona izan dezakezu prestatuta, baina agian txapelketara iristean ez zara ondo moldatzen, landuko dena ez duzulako prestatu. Horregatik da polita eta zaila aldi berean.

Nolako da entrenamendu dinamika?

Mondioringa zaletasun bat da niretzat. Klub bat sortu dugu lagun batzuen artean eta astean hirutan entrenatzen dugu. Orain banago 18 hilabete dituen txakur batekin, eta berarekin lehiatzen hasteko asmoa dut. Dena den, nire motibazio handiena da nire klubeko beste kideen txakurrak prestatzea eta euren maila gorenera eramatea.

Hori da gustatzen zaizuna kirol honetatik?

Bai. Ez naiz txapelketen fanatikoa, gehiago gustatzen zait entrenatzea. Zergatik mondioringa? Niri obediencia lantzea asko gustatzen zait, bizkortasuna... txakurraren senarekin jokatzeko ari zara, eta erronka handia da lortzea araudi baten barruan txakurraren sena altuak kontrolatzea. Txakuraren kirolen munduan babeseko ariketak dira maila altuena dutenak.

Niri entrenatzea asko gustatzen zait. Badago jendea oso fanatikoa dena eta lehiatzeko entrenatzen duena, baina niri horren atzeko eraikuntza da gustatzen zaidana, hori da gehien gozatzen dudana. Azken finean, urtean 10-15 txapelketa izan ditzakezu, baina urte osoa igarotzen dugu entrenatzen, astean hiru egunez, hori da niri gustatzen zaidana. Figurante bezala, adrenalina ere dut gogoko: txakurrak entrenatu, txakurraren hozkada sentitu... betidanik gustatu izan

elkarrizketa

zaizkit arrisku kirolak, adrenalina puntu hori dutenak, eta kirol honek hori ere eskaintzen dit.

Urrian urrats garrantzitsua eman zenuen txapelketen esparruan.

Bi figurante mota daude: formakuntzako figuranteak eta txapelketakoak. Ni bi aldeetan nago orain. Lehiaketetan sartzeko hiru maila daude. Lehenengo da klubeko figurantea, bigarrena da nazionala. Urrian egin nuen azterketa hirugarren maila lortzeko, nazioartekoa. Mundu osoko nazioarteko figuranteak eta maila hori lortu nahi zutenak batu ginen, eta sailkapena bat egin zen bertan, hurrengo urteko Munduko Monrioning Txapelketara nortzuk joango ziren ebazteko. 27 pertsona egon ziren, ni 9. postuan geratu nintzen. Ez nintzen munduko txapelketara jokatzeko sailkatu, baina nire lehengo aldia izan zen eta oso pozik nago emaitzarekin, lehenengo hamarren artean geratu naizelako. Aurten Greziara joateko asmoa dut postua hobetzeko, edo horretan saiatzeko behintzat.

“Ez nintzen munduko txapelketara jokatzeko sailkatu, baina nire lehengo aldia izan zen eta oso pozik nago emaitzarekin, lehenengo hamarren artean geratu naizelako”

Zer asmo dituzu 2024ra begira?

Gauza gehiegi egin nahi ditut. Txakur asko ditugu klubean entrenatzen, eta ardura nahiko dut horrekin. Baina baditut lehiaketa batzuk begitan hartuta, eta fisikoki asko landuko naiz Greziara ahalik eta indartsuen joateko. Urrian izango da norgehiagoka hori, iazkoa bezala. Ea lortzen dudan 9. postua hobetzea.

Urtean zehar beste txapelketa batzuk izango ditut: Madrilen otsailean, Portugalen martxoan eta apirilean ere badut beste txapelketaren bat.





Ekimen herritar batek oroituko ditu Laudion *Gazan hildako biztanleak*

Aktibo jarraitzen du Palestinaren aurkako sarraskia salatzeke Laudion sortutako herritar sareak. Udalak sustatu zuen talde horren eraketa, eta abenduan egin zuten lehen ekintza publikoa. Ehundik gora lagun biltzea lortu zuten herrigunea alderik alde zeharkatu zuten giza katean.

Mobilizazioa otsailaren 24an

Orain, aldiz, beste ekimen bat prestatzen ari dira datorren otsailaren 24rako. Zapatez

betenahi dute herriko plaza, Gazan hildakoen omenez, 11:30tik 13:00etara bitartean.

Horretarako, herriko zein eskualdeko sortzaileen laguntza eskatu dute, "arte-iriberetokia egiteko ekitaldi honetan ere". Artista bakoitzak "kolaborazio txiki bat" egitea dute buruan, "kantu bat, olerki bat, bertso bat, zuzenean margotzea..."

WhatsApp zenbaki bat jarri dute herritarren eskura, nahi duen orok harremanetan jartzeko aukera izan dezatan: 692710520. "Bidali

zure izena, telefonoa, arte diziplina eta egingo duzun ekarpenaren azalpen txiki bat, behar dituzun baldintza teknikoak (mikrofonoak, musika ekipoa...) eta zenbat denbora behar duzun", zehaztu dute antolatzaileek.

Atxikimendu kanpaina zabala jarri du abian Laudion martxan jarri den herritar taldeak. Palestinaren aldeko kartelak banatu dituzte herriko saltoki eta tabernetan, eta horietako askok jarri dituzte afixak erakusleihatetan.

MUSIKA

02.23 Ostirala
20:00 LAUDIO
BURBUILAK
Entsegu irekia
Faktoria

02.23 Ostirala
21:00 LAUDIO
SACROSANTA DECADENCIA OCCIDENTAL, URGULL ETA RECLUSION
Crust kontzertuak
Orbeko Etxea

02.24 Larumbata
20:00 AMURRIO
MARIA RIVERO: LERRO PARALELOAK
Amurrio Antzokia

02.24 Larumbata
22:00 LAUDIO
ASSATA
Faktoria

03.01 Ostirala
20:00 AMURRIO
BURBUILAK
Talde aiaraldearrak bere diskoa aurkeztuko du zenbait gonbidaturekin.
3 euro.
Amurrio Antzokia

03.02 Larumbata
21:00 URDUÑA
SEMBRANDO KAOS, ZUTIK ERROMERIA ETA DJ MASA
Foru Plaza

KIROLA

02.24 Larumbata
11:30 LAUDIO
ESKOLARTEKO GINKANA PROBA
Alberto Acero plaza

02.24 Larumbata
18:00 AIARA
UDABERRIKO BOLA TXAPELKEA
Beotegiko bolatokia

02.25 Igandea
18:00 AIARA
UDABERRIKO BOLA TXAPELKEA
Kexaako bolatokia

FAMILIA JARDUERAK

02.23 Ostirala
17:00 ARTZINIEGA
IPIUN TXIKIAK
Artziniégako liburutegia

02.24 Larumbata

02.24 Larumbata
17:00 LAUDIO
ABENTURA ERRALDOIA
La Milagrosa ikastetxea

02.25 Igandea
16:30 OROZKO
CORRE TIGER, CORRE
Donibane Aretoa

02.25 Igandea
17:00 AMURRIO
MIGRAZIOA, BIDAIA AHAZTEZINA
Amurrio Antzokia

HITZALDIAK

02.27 Asteartea
18:00 OROZKO
SEXU ANIZTASUNA HIRIETATIK AT
Donibane Aretoa

02.28 Asteazkena
18:00 ARRANKUDIAGA-ZOLLO
LIZTOR ASIARRARI BURUZKO HITZALDI INFORMATIBOA
Udal aretoa

03.01 Ostirala
20:00 LAUDIO
HABITUTAKO PABILIOI BAT
Beñat Saratxagaren solasaldia
Faktoria

BESTELAKO JARDUERAK

02.23 Ostirala
18:00 AIARA
GAZTELEKUKO GAZTE ASANBLADA
Luiaondoko Gaztelekua

02.24 Larumbata
11:30 LAUDIO
PALESTINAKO SARRASKIA GELDITU!
Hildako palestinarren memoria
Herriko Plaza

02.24 Larumbata
18:00 AIARA
KORRIKAREN ALDEKO PANKARTA TAILERRA
Luiaondoko gaztelekua

02.25 Igandea
11:00 ARTZINIEGA
TOKIKO EKOZILEEN AZOKA
Toñin Luengas frontoia

02.25 Igandea
13:00 ARRANKUDIAGA-ZOLLO
ARRANKUDIAGA-ZOLLOKO EMAKUMEEN I. TOPAKETA
Gizarte Etxea

02.01 Ostirala

Aiara Dantza taldea eta Korrontzi batera



Aiara Dantza Taldea 40. urteurreneko ospakizunetan murgilduta dago buru-belarri. Efemeridea ospatzeko hamaika ekintza antolatuta dituzte urte osorako, baina martxoko lehenengo asteburukoa mugarri berezia izango da. Martxoaren 2an Korrontzirekin batera arituko dira dantzan Amurrio Antzokiko oholztan, 20:00etatik aurrera. Dantza taldeko kideek hila beteak daramatzate ikuskizuna prestatzen.

Binakako Serie B pilota txapelketako ligaxkako finalerdiak Orozkoko frontoian



Orozkoko pilotalekuak Binakako Serie B txapelketako ligaxkako finalerdiak hartuko ditu martxoaren leian 22:15ean. Hamalau jardunaldi eta play offa jokatu behar izan dituzte pilotariak sailkapena lortzeko eta hori erdietsi dutenen artean Arkaitz Eskuza laudiorra dago. Eskuzak Egiguren V. kidea-rekin osatu du bikotea Agirre eta Iztuerearen kontra. Horretarako bederatzi partida irabazi ditu eta hiru galdu. Garaipena lortu izan ez zuen bi norgehiakotan, hain zuzen,


Iker Larrazabal aiararra izan zuen arerio. Larrazabalek, berez, asteburu honetan jokatuko du play ffa Eskirozekin batera Exposito eta Gaskueren aurka Larraintzarren. Irabaziz gero, Orozkon ere egongo da. Olabezarreko gazteak zortzi partidatan garaipena eskuratu du eta hiru galdu ditu. Birritan ordezkatu behar izan dute. Sarrerak Baiko-ko webgunean 15 euroren truk lor daitezke eta Orozkoko udaletxean, aldiz, 10 eurotan egongo dira salgai.

Kartelera



LA MILAGROSA
Vidas pasadas
OTSAILAK 24
LARUNBATA (3 euro)

19:00



AMURRIO ANTZOKIA
Yo capitán
OTSAILAK 25, 26
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)

19:00



DONIBANE ARETOA
El correo
OTSAILAK 25
IGANDEA (3,5 euro)

19:00



AMURRIO ANTZOKIA
Fallen leaves
MARTXOAK 3, 4
LARUNBATA (3 euro)

19:00

17:30 ARETA
SORGIN ZAPATUAK
Ipuin kontalaria, eskulanak eta askaria
Aretako Kultur Etxea

02.23 Ostirala
19:00 ARTZINIIEGA
ESKULAN TAILERRA
Artziniiegako Gaztelekua

ZINEMA

02.23 Ostirala
18:00 AMURRIO
CARMEN Y LOLA
Amurrio Antzokia

INFO +
aiaraldea.eus

Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?

HARPIDETU GURE KANALETARA!



Jaso Whatsappean eguneko edukiak, **688 848 152** zenbakira AIARALDEA GAUR mezua bidalita!



Batu Telegramera **t.me/aiaraldea** esteka bidez!



INFO+ www.aiaraldea.eus



argazki erreportajea

Otsailaren 9tik 13ra luzatu dira inauteriak Aiaraldean. Kirolari olinpikoak, erleak, pertsonaia historikoak, musikariak... irudimena dantzan jarri eta orotariko mozorroak prestatu dituzte eskualdeko bizilagunek festa-giroa ahalik eta gehien zukutzeko.

Irudimenak jantzi ditu Aiaraldeko inauteriak

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Sugar artean agurtu zituzten iragan otsailaren 13an Aiaraldeko inauteriak. Kakarro Birigarro pertsonaia zirikatzailearen erreketak eta Lezeagako Sorginaren akelarreak lau egunez luzatu den irudimenaren

festari amaiera eman zioten. Otsailaren 9an atera zituzten eskualdeko bizilagunek estreinakoz mozorroak kalera. Festara batzen lehenengoak ikastetxeetako ikasleak zian ziren Amurrion, Laudion eta Okondon egin zituzten kalejiretan. Orozkon *Got Talent* ikuskizun arrakastatsua antolatu zuen berriro ere Agate

Deuna abesbatzak. Festak larunbatean jo zuen goia, eta jai-giroa goizetik gaueko ordu txikiak arte luzatu zuten Artziniegan, Amurrion edota Laudion. Hain zuzen ere, Laudion egun osoko egitaraua prestatu zuen Suziri-Jai Koordinakundeak eta ehunka gazte batu ziren deialdi "historikora".



argazki erreportajea



argazki erreportajea



argazki erreportajea



bertako
igogailuak | ascensores
KORRIKAN ERE

EUSKARA,
GURE HELBURU
PARTEKATUA

945 712 822 bertako.eus



kultura



Los últimos románticos, hitza eta irudia

Pantaila handira eramango dute Txani Rodriguezen *Los últimos románticos* eleberria. David Perez Sañudo zuzendariak egokituko du idazle audioarraren lana, Miren Gaztañaga aktorea protagonista moduan hartuta.



Testua eta argazkiak **Almar Gutierrez Bidarte**

Zinema platoa bilakatu ziren Audioko tren geltokia eta bere ingurunea iragan otsailaren 13an, Txani Rodriguezen *Los últimos románticos* eleberrian oinarritutako filmaren grabaketan. David Perez Sañudo zuzendariak hartu du idazle audioarraren lana pantaila handira egokitzeko ardura. Sañudoren bigarren film luzea izango da honakoa, *Ane* filmaren ondotik. Ekoizle lanetan *La trinchera infinita* pelikula sarituaren atzetik egonda-ko ekoizle berdina dabil.

“Oso zaila izan da eleberria hitzez hitz moldatzea. —azaldu dio zuzendariak Aiaraldea Komunikabideari—

TXANIREN NOBELA OSO SAKONA DA, KONPLEXUA ETA HAUSNARKETAZ BETEA DAGO. HORREGATIK OSO ZAILA IZAN DA FISIKOKI IKUSTEA ETA HITZEI IRUDIAK JARTZEA. Marina Paresekin batera idatzi dut gidoia, eta konforme gaude emaitzarekin. Txaniren nobela oso potentea da, eta faktore horri esker hasieratik oso orientatuta ibili gara”.

Komedia elementu gutxi batzuk dituen drama da Perez Sañudok esku artean duen pelikula. “Hausnarketaz betetako pelikula” izango dela iragarri du zuzendariak, eta momentuz errodejara “bide onetik doala” nabarmendu du.

Irene protagonista

Hain zuzen ere, Txani Rodriguezek sortutako Irene pertsonaiak

gorpuztuko ditu pelikulako hausnarketa horiek guztiak. Miren Gaztañaga aktoreak hezur-haragitzen ari da Rodriguezen pertsonaia, eta “erabat zoriontsu” dagoela aitortu dio Aiaraldea Komunikabideari. “Pertsonaia konplexua da, oso fragila da bera. Iraganean galera garrantzitsuak bizi izan dituen pertsonaia da, eta, nolabait, bere ahultasun hori babesteko bere egunerokotasuna erritual askoz eraikita dago. Errepikapenaren barruan dago eta horrek segurtasun handia ematen dio berari. Kanpoaldea nahiko hostila sumatzen du, eta, babeste aldera, isolatuta bizi da”, azaldu du Gaztañagak.

Txani Rodriguezen eleberrian bezala, istorioaren testuinguruak ere garrantzia berezia hartuko du



Miren Gaztañaga

Aktorea

“Oso gustura gabiltza lanean. Urduri ere tarteka, baina oso kontent”

pelikulan. Miren Gaztañagak honela deskribatu du: “Pelikularen pasarteak testuinguru erabat post-industrial batean gertatzen dira. Dekadentzia dagoen garai batean bizi da Irene. Garai bateko espiritu obrero eta lankideago bat galdu, eta gizarte indibidualista eraiki da hondar horien gainean. Irunek dekadentzia hori bere inguruan eta bere baitan biziko ditu”.

David Perez Sañudok goraipatu egin du Miren Gaztañagaren lana: “Mirenek primeran egiten du. Niretzat oso pertsona berezia da, profesionalki eta baita pertsonalki ere”.

Txaniren hitzak, irudi

Pelikulak Txaniren hitzak ditu oinarri, eta eleberria funtsezko

tresna bilakatu da proiektua aurrera ateratzeko. “Niretzako opari handia izan da Txaniren liburua eskura izatea. Izan ere, Txanik erabat xehetuta dauka pertsonaia, hamar mila pekuliaridade aipatzen ditu bereak, eta nik uste hori aktore batentzat izugarritzko oparia dela —adierazi du Miren Gaztañagak—. Davidekin asko entseatu dugu, hori ez da ohikoa ikus-entzunezkoetan. Horrek aukera eman dit errodajea segurtasun gehiagorekin abiatzeko, pertsonaia pixkat gehiago erakita. Horrek dena errazten du. Oso gustura gabiltz lanean. Urduri ere tarteka, baina oso kontent”.

Txani Rodriguezek berak ere aukera izan du grabaketa bertatik bertara jarraitzeko eta oso pozikazaldu da emaitzarekin: “Oraindik oso gutxi ikusi dut. Irudibatuz ikusteko aukera izan nuen Gernikan, eta oso sentsazio ona utzizidaten. Baina nire obraren eta peliku-



David Perez Sañudo

Zuzendaria

“Oso zaila izan da Txaniren eleberria hitzez hitz moldatzea”

la honen arteko aldea ondo ari naiz asimilatzen. Eskainizidaten gidoia irakurtzea, eta nahiago nuen ez irakurtzea eta proiektua kanpotik jarraitzea. Oso lasai nago, konfiantza guztia daukat jarrita Daviden begiradan eta Marina Paresen idatzitako gidoian”.

Laudio inspirazio

Eleberrian inon azaltzen ez den arren, Laudio inspiratu zuen Txani Rodriguezen obra hein handi batean. Hori dela eta, David Perez Sañudorentzat ere berebizikoa izan da Laudio filmatzea, nahiz eta eszena gehienak Gernikan grabatuko dituzten: “Eleberriak markatu du geografia eta pelikularen atmosfera: trenbideak, fabrikak, zubiak... Laudio grabatzea ere garrantzitsua zen. Elgoibarren ere izango gara, eta aurki Lisboa eta Sevillan grabatuko ditugu eszena batzuk”.



Txani Rodriguez

Idazlea

“Oso lasai nago, konfiantza guztia daukat jarrita Daviden begiradan eta Marina Paresen gidoian”

Txani Rodriguezek atseginez hartu du pelikularen pasarte batzuk Laudio koinatzea: “Laudio grabatzea oso oso polita izan da ere. Izan ere, hau nire herria da, Iruneren herria. Nobelan aipatzen ez dudun arren oso argi dago Laudio dela kontakizunaren eszenatokia. Adibidez Laudio grabatutako eszenetako bat taberna batean grabatu dute, eta nire nobelan buruan neukan taberna hori zen justu. Oso bitxia eta polita ari da izaten prozesua”. Hilabete asko falta dira oraindik filma zinema aretoetara iristeko, baina Txani Rodriguezek ez du zalantzarik lan borobila izango dela Perez Sañudorena: “Nik ulertzen dut pelikula eta nobela ez direla gauza berdina izan behar. Gustatuko litzaidake *Los últimos románticos*-en espiritua jasotzea, baina ondo dakit pelikulak beste bide batzuk hartuko dituela ere, eta ondo deritzo”.



kultura

Kike Balenzategui argazkilariak jendetza bildu du Urduña Hiria Museoan



Kike Balenzategui eta Ignacio de Alava. **Jose Mari Gutierrez Angulo**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Hilabeteko epean bigarren aldiz egin dio Urduña Hiria Museoari bisita Kike Balenzategui argazkilari nafarrak, eta bigarrenkoz jendetza elkartu du museoaren areto nagusian.

Urtarrilaren 12an aurkeztu zuen Balenzategui Sakkaku proiektua museoan. Erakusketak Urduñan piztutako interesaren aurrean, hirira bueltatu eta publikoarekin solasaldi bat izateko konpromisoa hartu zuen argazkilariak.

Gauzak horrela, iragan otsailaren 16an itzuli zen Balenzategui Urduña Hiria Museoara. Ehun lagun inguruk bete zuten erakusketa areto nagusia topaketan parte hartzeko. Bigarren argazkilari nafar batek lagundu zuen Balenzategui bisita berri honetan: Ignacio de Alava argazkilariak.

Argazkigintzan egindako ibilbidearen errepasoan egin zuen Kike Balenzategui: garatutako proiektuak, sariak, argazkilari erreferenteak... Kartelgintzari ere eskaini zion tar-

tea; izan ere, 2011ko San Fermín Jaietako kartel ezagunaren egilea ere bada argazkilari nafarra.

Sakkaku proiektua

Kike Balenzateguiaren azken obra Urduña Hiria Museoan egongo da ikusgai martxoaren 24ra arte. *Sakkaku* da argazkilari nafarraren azken proiektu hori, eta irudimena eta ilusioa ditu oinarri.

Hain zuzen ere, Sakkaku hitzak ilusioa edo haluzinazioa esan nahi du japonieraz, Balenzategui berak honela aurkeztu zuen bere lana: "Nire argazkietan agertzen dena zer den ez jakitearen sentimendua interesatzen zait. Ez daukat errealitatearekiko konpromisorik. Fikzioaren eta egiaren artean eszenaratzea dago [...] argazkia gezur hutsa izan daiteke"

Ignacio de Alava argazkilariak ere goraiatu egin zuen kidearen lana ostiraleko aurkezpenean: "Eskemak hausten dituen argazkia da; paisaiak dirudite, baina simulazioak dira".

Iñaki Viñaspre gailendu da Arabako Bertsolari Txapelketaren Laudioko finalaurdenean



Izar Mendiguren izango da eskualdeko ordezkaria txapelketako hurrengo fasean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Dozenaka lagun bildu ziren otsailaren 11 arratsaldean Laudioko Lamuza parkeko Kasinoan Arabako Bertsolari Txapelketaren azken finala irabazteko.

Sei bertsolari aritu ziren norgehiagokan, eta Iñaki Viñaspre gailendu zen guztien artean.

Hau izan zen sailkapena: Iñaki Viñasprek 263 puntu; Asier Otamendik 251,5 puntu; Unai Andak 251 puntu; Izar Mendigurenek 241,5 puntu; Martin Abarategik 233,5 puntu; eta Felipe Zelaietak 214,5 puntu.

Oier Azkarraga Grajales arduratu zen Laudioko saioa aurkezteaz, 13 laguneko gai-jartzaile taldearen ordezkari moduan. Epaile lanetan, aldiz, Ekaitz Elorriaga Anduaga, Aitor Jimenez Tolosana eta Egoitz Iradier Martinez de Albeniz aritu ziren, eta Endika Jimenez Enbeitak bete zuten idazkari funtzioa.

Finalerdia

Azken saioa igarota, osatuta geratu da finalerdietara igaroko diren bertsolarien zerrenda. Hauek izango dira fase horretan lehiatuko direnak: Peru Abarrategi, Aroa Arrizubieta, Iña-

ki Viñaspre, Ekaitz Samaniego, Eli Zaldua, Manex Agirre, Unai Anda, Aitor Ugarte, Asier Otamendi, Izar Mendiguren, Paula Amilburu eta Xabi Igoa.

Mendiguren izango da Aiaraldekoko ordezkari bakarra txapelketan. Martxoaren 2an Dulantziko Kultur etxean egingo den saioan arituko da bertsolari laudioarra, Aitor Ugarte, Aroa Arrizubieta, Asier Otamendi, Paula Amilburu eta Xabi Igoarekin batera. Finala, aldiz, martxoaren 16an izango da, Gasteizko Principal Antzokian, baina ikusteke dago oraindik nortzuk joango diren bertara.

Antsietatearen aurkako borroka islatu dute Ziztada & Rlantzek euren abesti berrian

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Abesti berria plazaratu dute Iruñe Elgezabal *Ziztada* kantari bilbotarrak Erlantz Serrano *Rlantz* ekoizle amurriarrak. *Ahotsak* izen jarri diote abestiari, eta "antsietatearen aurkako borroka pertsonala" irudikatunahi izandute, "isolamendua eta Ziztadaren buruarekiko borroka irudikatuz".

Letrari dagokionez, "ondoeza, aurrera jarraitzeko ezintasuna eta erantzunik ez izatea" islatu nahi izan dute sortzaileek. Ildo beretik doapiezaren musikaere, "mezuaren emozioen intentsitatea" islatuz eta, horrela, "entzumen esperientzia" sortuz. Bi sortzaileen aburuz, "kanpoko ahotsen kontrako erronka" dakantua, "eta horien aurka borrokatzeko nahia islatzen da, nahiz eta batzuetan ez dugun

ulertzen zergatik". Gauzak hala, esperodute abestia "antsietatearekin edonolako harremana" izan duten pertsonengana heltzea.

Azken fruitua

2018ko urtarrilean plazaratu zuten *Ziztada & Rlantzek* euren lehen diskoa, eta ibilbide oparoa egin dute orduetik hona, beste bi album eta hainbat kantu solte plazaratuta.

barestutako edukia

NEGUA

FAKTORIAN

OTSAILA



BURBUILAK

23, barikua
20:00 · Faktorian
ENTSEGU IREKIA/
BURBUILAK
ESKUALDEKO EMAKUME
EZBERDINEN KOLABORAZIOAREKIN
DOAN

#MUSIKA



24, zapatua
22:00 · Faktorian
KONTZERTUA/
ASSATA
ROCKA ETA FUNKA!
BAZKIDEEK 6€ / EZ-BAZKIDEEK 8€

#MUSIKA



25, domeka
17:30-19:00 · Faktorian
ZIRKOA FAMILIAN
AKROBAZIA ATELIERRA
BAZKIDEEK: 2-3 KIDOKO FAMILIA 40€
(5€ KIDE GEHIGARRIA) / EZ-BAZKIDEEK 45€
(7€ KIDE GEHIGARRIA)

#ZIRKOA

MARTXOA



01, barikua
20:00 · Faktorian
PLAZA EGUNA/
HABITATUTAKO
PABILIOI BAT
BEÑAT SARATXAGA
ARKITEKTOAREKIN SOLASEAN
DOAN

#ARKITEKTURA



02, zapatua
17:00-19:30 · Faktorian
MAHAI JOLASEN
TOPAKETA
GAZTE-GAZTEENTZAT
DOAN

#GAZTEGAZTEAK
#JOLASAK



03, domeka
17:30-19:00 · Faktorian
ZIRKOA FAMILIAN
AKROBAZIA ATELIERRA
BAZKIDEEK: 2-3 KIDOKO FAMILIA 40€
(5€ KIDE GEHIGARRIA) / EZ-BAZKIDEEK 45€
(7€ KIDE GEHIGARRIA)

#ZIRKOA



08, barikua
EMAKUME
LANGILEAREN
NAZIOARTEKO EGUNA.
GORA MARTXOAK 8!

#FEMINISMOA



10, domeka
11:00-13:00 · Faktorian
0-3 URTE ESPAZIO
LIBREA

BAZKIDEEK 5€ / EZ-BAZKIDEEK 7€

#HAZKUNTZA



10, domeka
17:00 · Faktorian
DANTZASKE/
GORPUTZA
POLARIZATUA
SOLASALDIA


BORONDATEA

#PLAZERRA
#GORPUTZIRAULTZAILEAK



15, barikua
19:00 · Faktorian
FAKTORIATXIKI GAUA
HAURRENTZAKO GAU-EGONALDIA
DOAN

#HAZKUNTZA
#HAURREFAKTORIA



16, zapatua
17:00 · Faktorian
DANTZASKE/
GORPUTZA
POLARIZATUA
TAILERRA

BAZKIDEEK 30€ / EZ-BAZKIDEEK 32€

#PLAZERRA
#GORPUTZIRAULTZAILEAK



17, domeka
17:30-19:00 · Faktorian
ZIRKOA FAMILIAN
AKROBAZIA ATELIERRA
BAZKIDEEK: 2-3 KIDOKO FAMILIA 40€
(5€ KIDE GEHIGARRIA) / EZ-BAZKIDEEK 45€
(7€ KIDE GEHIGARRIA)

#ZIRKOA



22, barikua
KORRIKA
AIARALDEAN!
HARRO HERRI AIARALDEA!

#EUSKARA



23, zapatua
22:00 · Faktorian
KONTZERTUA/
ITHAKA

BAZKIDEEK 8€ / EZ-BAZKIDEEK 10€

#MUSIKA

kirola

“Victor Cabedo, Michele Scarponi, Gino Mader... ezin dugu esan ohitu garenik, baina kirol honetan txirrindulariak hiltzen dira istripuetan”



ARITZ ARBERAS PAMPIN (Amurrio, 1987) PRESTATZAILE FISIKO PROFESIONALA LIDL TREK TALDEA FITXATU DU ETA JADANIK LANEAN HASI DA.



Testua
Aitor Aspuru Saez

Duela gutxi hasizara LIDL Trek taldean prestatzaile fisiko lanetan eta talde gisa badituzue anbiziozko helburuak.

LIDL-en ideia da munduko lehen taldea izatea UCI World Tour sailkapenean. Ez da aurtengo helburua, baina hori da nahi dutena. Polita da argi utzi dutela ez dugula egin behar kosta ala kosta. Izatekotan, ahalegin zoroak egin barik eta langileak hirurehun egun urtero behar egin gabe etxean. Modu logikoan egingo da eta lortzen badugu pozik egongo dira. Erreferentzia hori da.

Jakina, euren erreferentzia da Frantziako Toura eta horretan lehiatzea da helburuetako bat.

Nola eragingo dizu horrek?

Printzipioz, nire arduraren badi Tourreko prestakuntza egitea. Maiatzean Sierra Nevadara joango gara training camp egiteko eta hogeit egunez han izango gara. Tourreko aurreko hautaketa egingo dugu eta gero lasterketara joko dugu.

Prestatzaileen lana lasterketan izan ohi da tropela baino 20 minutu lehenago joatea eta kontatzea non jotzen duen haizeak, arazoak dauden errepidean... Azken uneko informazioa ematea.

Errendimendu aldetik, laguntza ematen diegu zuzenda-

riei, txirrindularien errendimendua deskribatuta, azaltzen diegu nola osatzen ari diren txirrindulariak... Eurek ahalik eta hoberen prestatzeko lasterketa.

Toureaan, dena den, esperientzia latza bizi izan duzu. Dopingaren kontrako sarekada egon zen zure taldearen kontra eta nahiz eta, akusazioak ezerezean geratu, horrek ez du operazioak izandako oihartzun bera.

Bai, ezerezean geratu da. Txirrindularitza badakigu nondik datorren eta zein historia izan duen, eta poztekoa da erabat aldatu izana. Dena dago kontrolpean eta test ugari egiten dira. Ziur egongo dela baten bat saiitzen dena, baina ez da aspaldiko egoera eta ez da orokorra.

Hala ere, egun ikerketek jarraitzen dute eta guri egokitu zitzaigun 2021ean Toureaan. Pau-n geundela 50 gendarme agertu ziren, gure logeletan sartu ziren, txirrindulari batzuei ordenagailua eta sakelakoa kendu zizkieten. Hurrengo urtean beste sarekada bat egon zen, baina orain ikerketa ixtear dago eta badakigu ez zela ezer gertatu.

Ondo dago miaketa bat egiten dutenean erakustea ez dela ezer arrarorik egon. Ordenagailuak eta sakelakoak itzuli dituzte eta kasua, esan bezala, ixtear dago.

Txirrindularitzan maiz gertatzen dena da. Talde batek emaitza onak lortzen dituen horrelakoak gertatzen dira. Alde batetik, nekagarria da. Bestetik, erakusten da ez dela legez kontrako ezer gertatzen, kirol garbia da eta ba-

rruan gauden guztiok argi dugu zein den bidea. Hau zeharo aldatu da.

Iraganeko zama hori kendu behar dugu gainetik eta ordaindu.

Nola eragiten dio Toureaan dabilen talde bati horrelako sarekada batek?

Kirolaren esparruan eragina dauka. Gaueko 02:30ean sartu ginen ohean. Estresa, nekatuta geunden, ze lasterketa amaitzeko lauzpabost etapa baino ez ziren geratzen, emozioak azalean zeuden... Kolpe gogorra da, baina txirrindularitza hain kirol gogorra izanik, doluek ez dute luze irauten.

Hurrengo egunean kontzentratu ginen eta gauzak ondo egin genituen. Mohoricek etapa bat irabazi zuen operazioaren ostean.

Hori bai, Tourra amaituta, guztiok ordaindu genuen estresarekin, nekearekin... Horrelakoa da, onartu behar dugu lanaren ezaugarri bat dela eta aurrera egin.

Nola hartu zuen tropelak talde sarekadaren ondoren?

Norbanakoen arabera. Batzuek adierazgarri gisa hartu zuten eta beste batzuek ez zioten garrantzirik eman. Gero agerian geratu da dena zuzen eta zilegia zela. Nik benetan diot, barruan zaudenean nekagarria da, baina onartu behar dugu iraganeko gehiegikeriak eta gaizki eginikoak

ordaindu behar ditugula. Berriro ere erakutsi dugu txirrindularitza aldatu dela.

Talde aldaketarekin Pello Bilbaorekin izandako elkarlana eten behar izan duzu. Zein zapo utzi dizu horrek?

Gazi gozoa. Azken finean, talde berrira bazoaz, ilusio handiarekin egiten duzu, baina atzean uzten duzu Pellorekin egindako lana. Harremana mantendu da, baina berarekin proiektu oso politik nituen eta berarekin lan egitea oso motibagarria izan da.

Bizitzan ezin duzu dena izan eta erabakia hartu behar nuen. Agian nire bizitza profesionaleko gogorrena. Berarekin harremanak jarraituko du, baina amorrua ematen dit, nire taldean ez delako egongo txirrindulari on hori. Edonola ere, ikasitakoak eraman eta aurrera.

Zer eman diozu bere ibilbide profesionalari?

Hori agian berak erantzun beharko luke hobe, baina esan ahal dut lan handia egin dugula, proiektu politik izan ditugula, eta baita egoera zailak ere. Adibidez, Astanan sartu zenean Caja Rurales egon ondoren, aldaketa gogorra egin zitzaion. Talde berria zen, eredu ezberdinak. Vuelta Españan ondo ibili zen, baina nekez.

Igoera luzeetan hobetu du eta lasterketa handietan sailkapen orokor onak egiten lagundu du, hori pozgarria da. Urtean zehar bere sasoiak kudeatu dugu ahalik eta lasterketa gehienetan hobeto egoteko. Horretarako entrenamenduak eta etxeko egonaldiak findu ditugu.

Kirol profesionalean une politik izan dituzu, baina une oso latzak ere, txirrindulariak galtzea, esaterako. Nola bizitzen da hori kirol batean?

“Amorrua ematen dit Pello Bilbaorekin lan egiten ez jarraitzea, baina erabaki zailak hartu behar dira”

Imajinatu. Euskaltelen Victor Cabedo hil zen entrenamendu batean. Auto batek jo zuen. Astanan Michele Scarponiri gauza bera gertatu zitzaion eta Bahreinen Gino Maderrek erorikoa izan zuen Suitzan eta pena handiz bizi izan ditugu. Ezin dut esan ohitu garela, ezinezkoa delako, baina kirol honetan gertatzen da noizbehinka.

Hemen ikurra altxatu beharko genukeen galdetzeko zergatik hiltzen diren horrenbeste txirrindulari errepedetan. Azkenengo urteetan gero eta gehiago dira bi-deetan eta zerbait aldatu beharra dago istripuak ez gertatzeko eta hainbeste bizitza galtzeko.

Gobernuei eta gidariei gogoratu behar zaie, txirrindulari baten kontra jotzen dutenean, txirrindularia hiltzen dela. Gidatzen dugunean hori kontuan hartu behar da eta gobernuek bitartekoak jarri behar dituzte ezbeharrak ekiditeko. Izan ere, txirrindulari etorkizuneko garaio da. Horretan inbertitu eta ohiturak aldatu behar dira.

Bukatzeo, Euskaltel, Astana eta Bahrein Victorious taldeak ezagutu dituzu. Zer ikasi duzu proiektu bakoitzean?

Egia esanda, ez dakit zertan hobetu dudana, baina egia da taldea aldatzen dudana bakoitzean sentitzen dudala profesional gisa hobera egin dudala. Ez dakit zehazki zertan, baina taldea aldatzean asko motibatzen naue-na sari hori da, egin dudana bakoitzean hobetu dut eta. Oso motibagarria da.

Esperientziak, bestalde, ematen dizu hobeto ezagutzea World Tour maila, lasterketak. Urteak igarota, etapak deskribatzeko orduan asko hobetu dugu teknologiarri esker eta horrek ematen digu aukera entrenamendu saioa hobeak prestatzeko.



kirola

BOLATOKIA

Martxoaren 2an hasiko da Arabako XLVII Bolatoki Txapleketa

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Aurkeztu berri dute Arabako Bolatoki Txapelketaren XLVII. edizioa. Guztira eskualdeko zazpi bolatoki-tan jokatu da, martxoaren 2tik ekainaren 2ra bitarte.

Laudion egingo dute txapelketaren estreineko tirada, datorren martxoaren

2an. Hauek dira argitaratu dituzten datak: martxoak 2-3 San Roke bolatokia; martxoak 9-10 Okondoko bolatokia; apirilak 6-7 Tertangako eta Urduñako bolatokiak; apirilak 20-21 Lendoñobeitiko bolatokia; maiatzak 25-26 Kexaa eta beotegiko bolatokiak; eta, azkenik, ekainak 1-2 Luiaondoko bolatokia.

ATLETISMOA

Koldo Ayesta eta Elena Loyo gailendu dira XVI. Laudiko Herri Krosean



Laudioko Herri Krosaren edizio berria jokatu zuten. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Laudio Atletismo Klubeko kideek Laudiko Herri Krosaren edizio berria antolatu zuten otsailaren 11. Berrehun parte hartzaile baino gehiago batuziren Aldai Plazako irteera lerroan, lasterketaren zortzi kilometroei aurre egiteko.

Koldo Ayesta izan zen ibilbidea osatzen lehenengoa. Korrikalari laudioarrak 25 minututan egin zuten zirkuitua. Emakumezkoen kategorian Elena Loyo puntako atleta olinpikoak irabazi zuen. Loyok 27. minutuan gurutzatu zuen helmuga lerroa, sailkapen orokorreko hamaikagarren postuan.

ESKUBALOIA

Debut bikaina egin zuen Uxue Alonsok Zuazoko lehen taldearekin



Eskarmentu handiko jokalariekin lehiatu arren, hiru gol egin zituen Alonsok. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Uxue Alonso laudioarrak debut aparta izan zuen larunbatean Lasasarreko kirol azpiegiturretan Zuazo Eskubaloiko Klubarekin. Laudioarrak etekin handia atera zion jokatutako minutuei eta hiru gol egitea lortu zuen. Modu horretan, bere alea jarri zuen taldeko garaipenean CICAR Lanzaote Ciudad Arreciferen kontra, 26-19 irabazi baitzuten.

Alonso Zuazoko filialeko jo-

Uxue Alonso laudioarrak estreinako aldiz jokatu zuen Zuazo klubeko lehen taldearekin eta, gainera, hiru gol egin zituen

kalaria da eta larunbateko partidarekin eskubaloiko bigarren mailan aritu da jadanik. Zuazo talde historikoa da kirol horretan eta aurreko denboraldian maila gorenetik jaitsi eta gero, egun sailkapenaren buruan dago eta igoera automatikoa eskuratu dezake.

Alonsoren bosgarren denboraldia da hau Barakaldon baina Laudio Eskubaloiko Taldean trebatu zen jokalaria gisa. Horrez gain, Euskal Selektioan ere hautatu dute.

Gustoko

MARTXOAK 1-3

KALITATEA ETA JATORRIA

EROSI ZURE SARRERAK ONLINE

www.gustoko.eu

KOLABORATZAILE NAGUSIAK

ANTOLATZAILEA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, INDUSTRIA Y MEDIO AMBIENTE

EXPOSSIBLE!

herriko plaza



Urdax eta Laiane

Jada 7 eta 5 bira eman diozue eguzkiari...Zorionak jarraitu zuen ametsak eraikitzen

Aita eta ama



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Martxoaren 6an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ZAILA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2 | | | | | 8 | | |
| | | | 5 | | 2 | 7 | | 3 |
| | 5 | | | 6 | | 4 | | |
| | | 4 | | | | 3 | 6 | |
| 5 | 7 | 8 | | | | 9 | | |
| 6 | 9 | | | 2 | 8 | | 4 | |
| 8 | | | | | 7 | 2 | | |
| | | | 2 | | 3 | 6 | 5 | |
| | 6 | | | | | 3 | | |

ERRAZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 3 | | 7 | | | | | 6 |
| 4 | | | | | 9 | | 8 | 3 |
| | 7 | | | 2 | 3 | | | 5 |
| 6 | | | 4 | | | | | |
| | 5 | | | | 2 | 6 | | 7 |
| | | 4 | 3 | | 5 | | | |
| | 6 | | 8 | | 4 | 5 | 3 | |
| | | 3 | 2 | 5 | | | | |
| 5 | 4 | | | 3 | 7 | | | 9 |

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



Binakako Serie B txapelketako ligaxkako finalerdiak ikusteko sarrera bikoitza

Binakako Serie B txapelketako ligaxkako finalerdiak ikusteko sarrera bikoitz baten zozketa
Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Otsailak 29, 15:00etan.

KOKO RIKO

IRAKURKETA GUNEA

INOIZ EZ DESAGERTZEKO IPUINA

Idazleak: Maitane Unanue eta Mirari Alkorta
Ilustratzailea: Xabier Etxaniz
Argitaletxea: Denonartean

Ilargiaren desagertzearekin hasten da ipuina, eta ilargia desagertzen den bezala ni desagertzen banaiz? Heriotza, desagertzea eta dolua lantzeko ipuin oso interesgarria.



CONNEMARA GURE BIHOTZETAN

Idazlea: Julen Gabiria
Argitaletxea: Elkar

Txema izeneko gazte batek bere bikotekidea Eider galtzen du auto istripu batean. Bere bikotekidearen dolua egin nahian, Eiderrek Irlandara eginiko bidaia bat berriz egitea erabakitzen du. Bertan ezagutuko du benetan Eider zelakoa zen.



JOLASGUNEA

ORBITO

ZER DA? Estrategia jolasa da. Zure koloreko lau bolatxoak linean jarri behar dira. Lau linean joku klasikoaren moldaera bat da, partida bakoitzean bolatxoak modu konkretu batean giratzen baitira.

AZALPENA: Erdian botoi bat duen taula bat eta bi koloreko 16 bolatxorekin (kolore bakoitzeko 8) jolasten da.

Lehenengo jokalaria tableroan nahi duen tokian lehenengo bolatxoa jartzen du eta erdiko botoiari ematen dio. Erdiko botoia sakatzean, bolatxoak posizioz aldatuko du bere posizio berrira.

Gero hurrengo jokalaria berdina egin beharko du. Kasu honetan, erdiko botoia sakatzean bi bolatxoak lekuz aldatuko dira.

Helburua zure koloreko lau bole marra bat egitea da. Baina kontuz txanda bakoitzean bolatxoak posizioz aldatze direla.



INAUTERIETAKO BELARRIAK



OSAGAIK:

- Gari irina 250g
- Gurina 50g
- Ur epela 100 ml
- Azukrea 60g
- Arrautza 1
- Limoia xehea
- Gatza
- Anis zaporea

ZELAN EGIN?

1. Bol batean elkartu, gurina, ura, azukrea, arrautza, limoia, gatza eta anis zaporea. Ondo nahastu
2. Oreak irin iragazia bota, nahastu eta ordubete utzi atseden hartzen.
3. Orea zatitu eta olioaren laguntzarekin luzatu, belarri forma eman.
4. Olio berotzen jarri eta luzatutako zatiak frijitu.
5. Gaietik azukrea bota eta jan aurretik hozten utzi.



KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Limiteak

Informazioaren garaian bizi gara, eskura dugu munduko informazio guztia, klik egin eta nahi dugun hori topatu dezakegu. Adimen artifizialari ditugun zalantzak galdetu ahal dizkiogu... Garai horretan bizi garen arren, gurasoak inoiz baino galduago sentitzen dira haurraren hazieran.

Aurreko garaiei erreparatu gero, zaintza askoz ere kolektiboagoa zela aztertu dezakegu, eta gauzak zelan egin nagusien aldetik jasotzen zen. Haziera hala ere bortitzagoa zela esaten du mundu guztiak, haurrak jotzea lehen mailan zegoen kontu bat zen.

Gaur egun, haziera askoz ere indibidualagoa da. Gurasoak dira haur horren erantzule bakarrak, ez zaio kolektiboari erreparatu, horrela, haur bat, herriko plazan, ikusten dugunean gustatzen ez zaigun zerbait egiten ez diogu adierazten, ardura hori gurasoena dela uste dugulako. Indibidualismo horrek herrietan sareak sortzea zailtzen du.

Gurasoak, beraz, bakarrik hezten dute eta informazioa leku guztietatik datorkie. Informazio mozkorraldi horrek, gainera, arreta nahi dugun horetan bakarrik jartzea ekartzen du. Hau da, soilik interesatzen zaiguna jasotzen dugu eta zailtasunak suposatzen dituena edo hainbeste gustatzen ez zaiguna alde batera usten dugu. Hazieran ordea, batzuetan ezin da nahi ez duguna saihestu. Haurraren askatasuna eta parte hartzea ezin da ulertu limiteak ezarri gabe, mugimendu librea ezin da ulertu behaketa sakon bat gabe...

Limiteak ezartzea ez da batere erraza, limiteak maitasunez jarri nahi ditugu, haurraren garapena oztopatu gabe. Erraza ez denez, askotan limitea ez jartzera joaten gara. Horrela, guraso askok askatasunean hezten dituzte haurrak limiteak ezarri gabe, presente egon gabe. Askatasuna ez baita, presente egon gabe haurra libre ustea nahi duen hori egiteko. Egoera horiek haurra utzikieran uztea ekartzen dute. Hain larria da hazieran indarkeria erabiltzea eta utzikieran erortzea ere.

Haziera eguneroko borroka da, egunero presente egotea ekartzen duen lana, neketsua eta gogorra. Emaitza aldiz zoragarria!

ALdea dago!!

Gaixoa gure Maripurtzill! Gaixoa, gainera, zentzu guztietan. Sukarra nahikoa ez, eta amak "mehatxu" egin dio, bere mesedean ari delakoan. Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.




Sudokua

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| K | | | | | O |
| B | A | | T | | |
| | | K | | B | |
| A | | | K | | I |
| | K | A | | | B |
| T | | I | | K | |

Izan ere, zer ematen zaio gaixo dagoenari? Botika, hain zuzen ere, eta gehienetan nazkagarria izaten da. Bete itzazu sudoku honen hutsuneak BOTIKA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (B, O, T, I, K eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Itzala

Pelloziriren laguna harrokeriatan aritu da: sua piztu du! San Juan bezpera dela uste al du?! Suaren gainean jauzi egin duen batean, puzkertxo batek ihes egin dio, eta brokoli asko jan ostean izan denez, gaseoso samarra atera zaio gizajoari, eta, jakina, su hartu dio... Zein da bere itzal zuzena?



SOLUZIOAK

Kontra

Aiaraldetik mundura



UZTAI LARGATXA

JAIOTERRIA
LAUDIO (1993)

BIZILEKUA
COSTA RICA

BIDAIAREN ZERGATIA
FAMILIA ETA KOMUNITATE ARRETAKO MEDIKU IZATEKO
FORMAKUNTZA GARATZEA.

COSTA RICA



DESKRIBAPENA

Ozeano Barearen eta Karibe itsasoaren artean kokatutako estatu burujabea da. Espainiako kolonia izan zen 1821. urtean independizatu zen arte. Ingurune natural oso aberatsa du; Erdialdeko Amerikako biodibertsitatearen %75 dago bertan, eta mundu mailako %6.

AZALERA

51.179 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

5,23 milioi biztanle.

HIZKUNTZA

Gaztelania, malecu, cabécar, bribri, guaymí eta bocotá

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilloia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzan Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

“Hego Amerikatik Estatu Batuetarako bidea hasi duten etorkinak artatzen ditugu”

Zerk eraman zaitu Costa Ricara? Zenbat denborarako?

Otsaila hasieran etorri ginen beste hiru lankide eta lauok San Vitor (Coto Brus) Costa Ricako hegoaldeko herri batera, Panamako mugatik hurbil. Familia eta komunitate arretako mediku izateko formakuntza amaitzeaz gaude eta, horren baitan, bi hilabeteko egonaldia lotu dugu Pablo Ortiz medikuaren babespean, bertako erreferente sanitario zein komunitarioa.

Nolakoa da zure egunerokoa bertan?

Batetik, errekurso komunitarioak lantze aldera, inguru honetako herri nomadak artatzeko hainbat proiektu ezagutu eta hauetan parte hartzeko aukera dugu, ahalik eta osasun-arreta eta hezkuntza onena izan dezaten, euren kultura eta bizimoduan kalte egin ba-

rik. Bestetik, Hego Amerikatik Estatu Batuetarako bidea hasi duten etorkinak artatzen ditugu mugako zentroetan, aspektu fisiko zein mentalean.

Oso desberdina da bertako osasun sistema?

Costa Ricak osasun sistema on du inguruko herriladeekin alderatuta, eta, zentzu batean, gurearekiko antzekotasunak ditu; gizarte segurantzak ahalbidetutako osasun-arreta publiko, doako eta unibertsala eskaintzen baitu, lehen arretan oinarritutakoa. Hala ere, ez dago esan beharrik hori gauzatzeko baliabide material, humano zein ekonomikoak ez direla berdinak. Itxaron-zerrendak oso luzeak dira eta, orografia zein lurreko komunikazio eskasak medio, arreta jasotzea zailagoa da. Bestalde, soziologia ere ezberdina da herrial-

dean bertan. Iparraldean okzidentalagoa bada ere, hegoaldean Panama eta Costa Rica artean bizi diren Ngäbere familia asko daude, kafe-uzta garaiaren arabera, batetik bestera mugitzen direnak. Osasun sistema publikotik at egon diren pertsonak izan dira hamarkada askotan zehar, Pablo Ortizek kontakturako hainbat proiektu martxan jarri zituen arte, eskualdeko lehen arretako zuzendaria zela. Hala, euren erreferente eta lotura komunitarioa bihurtu zen.

Nolakoa da egoera Costa Rica eta Panama arteko mugan?

Artatzen ditugun etorkinak Colombia eta Panama banatzen dituen muga naturala oinez gurutzatetik datoz, Darien oihana, etorkizun hobe baten bila, mafiek kudeatutako bideetan zehar iparraldera jotzen dutenak. Ume, gazte eta hel-

duak; haurdunak eta jaioberriak; bakarrik, familian ala lagunartean. Biderako eramaten dituzten diru eta ondasunak lapurtzen dizkiete gizon armatuek, bahitu eta jipoitzen dituzte, ume zein emakumeak bortxatzen dituzte, tiroz zein labankadez erailtzen dituzte. Mafiek, militarrek, ezezagunek. Hori gutxi balitz, oihanak berezko dituen ibai korronteei, bide maldatsuei, harrizko hormei aurre egin behar diete.

Zoritxarrez, guztiek ez dute Panamara iristea lortzen. Eta iristen direnek Nicaragua eta Mexico dituzte aurretik oraindik, heriotzez beteriko bidaia batean. Zentzu horretan, azpimarratu nahi dut Hands 4 Health bezalako GKEk eskaintzen duten arreta. Ez da konponbidea, ez da behar lukeena, baina hori da pertsona horiek eskura duten arreta bakarra.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA